

**FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS, SOCIALES Y DE LA EDUCACIÓN
GIZA, GIZARTE ET HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

Graduado o Graduada en Maestro en Educación Infantil

Haur Hezkuntzako Irakasletzako Gradua

Trabajo Fin de Grado

Gradu Bukaerako Lana

Genero estereotipoak eta Haur Hezkuntza: Artea eta Ikus Kultura baliabide gisa

Ikaslea: Iratxe Ochandorena Pikabea

Bideorako esteka: <https://youtu.be/Buj3zb8L7nU>

Tutor/Tutorea: Amaia Arriaga

Departamento/Saila: Arte Hezkuntzako Departamentua

Campo/Arloa: Nafarroako Museorako proposamen didaktikoa

Hilabetea, urtea: ekaina, 2022

Laburpena

Gradu bukaerako lan honek, gizartean ematen diren egoera zehatzak aztertzea du helburu; egungo Haur Hezkuntzako geletan genero estereotipoak zein puntutaraino ematen diren aztertuko da.

Helburua bete ahal izateko generoarekin zerikusia duten termino ezberdinak ikertu ondoren, genero estereotipoak Haur Hezkuntzan nola transmititzen diren, eta batez ere kurrikulum ezkutua kontuan izanda, nola lantzen diren aztertuko da. Beraz, kurrikulumean esplizituki azaltzen ez diren, eta hain barneratuak dauden jarrerak eta ideiak aztertuko dira. Behin estereotipo hauek Haur Hezkuntzako geletan zer nolako eragina duten baloratuta, ideia hauek ekiditeko asmoz nola jokatzeko den aztertuko da.

Idea hauek deusestatzen jarraitzeko asmoarekin, proposamen berri bat sortuko da eta honetarako artea eta ikus kultura baliabide gisa erabiliko dira, ikaskuntzak barneratzeko tresnak izango direlarik.

Hitz gakoak: sexua; generoa; genero estereotipoak; curriculum ezkutua; ikus kultura.

Resumen

El objetivo de este Trabajo de Fin de Grado es analizar situaciones concretas que se dan en la sociedad. De forma específica, se analizará cómo están presentes los estereotipos de género en las aulas de Educación Infantil.

Una vez estudiados los diferentes términos relacionados con el sexo y el género, se ha observado cómo se transmiten los estereotipos de género en las aulas, teniendo en cuenta el currículum oculto. El objetivo de esta parte del proyecto es examinar aquellas acciones que no se dan explícitamente en el currículum, pero que están tan integradas en nuestra sociedad, que se transmiten de manera inconsciente o normalizada.

Una vez vista la influencia que tienen estos estereotipos en las aulas de Educación Infantil, se han estudiado diferentes actividades que se realizan para evitar dichas ideas. Por último, se ha creado una nueva propuesta con el objetivo de seguir cambiando la forma en la que interiorizamos estas ideas. El arte y la cultura visual serán los recursos utilizados para interiorizar estos aprendizajes.

Palabras clave: sexo; género; estereotipos de género; currículum oculto; cultura visual.

Abstract

The aim of this Final Degree Project is to analyze some specific situations that occur in society. Specially, it will be analyzed how gender stereotypes are present in Early Childhood Education classrooms.

Once the different terms related to sex and gender have been studied, it will be observed how gender stereotypes are transmitted in the classroom, considering the hidden curriculum. The objective of this part of the project is to examine those actions that are not explicitly given in the curriculum, but that are so integrated into our society that they are transmitted uncociously or in a normalized way.

Once seen the influence these stereotypes have in Early Childhood Education classrooms, different activities that are carried out to avoid these ideas will be studied. Finally, a new proposal has been created with the aim of keeping changing the way in which we internalize these ideas. Art and visual culture will be the resources used to internalize these learnings.

Keywords: gender; gender stereotype; hidden curriculum; visual culture.

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	4
INTRODUCCIÓN.....	5
MATERIALAK ETA METODOA	6
MARKO TEORIKOA.....	13
Sexu eta generoaren arteko berezitasuna	13
Sexua eta generoaren mundua ulertzeko hainbat kontzeptu	15
Genero eta genero estereotipoak	18
Hezkuntza eta genero estereotipoak: curriculuma eta curriculum ezkutua	20
Hezkidetza plana	26
Artea eta ikus kultura: arrotzak izan daitezken gaiak lantzeko baliabide aparta	29
ATAL PRAKTIKOA.....	34
BEHAKETA	34
EMAITZAK ETA BERE EZTABAIDA.....	44
IRAKASLEEN PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK.....	47
1GO PROPOSAMENA: EMAKUMEAK MUNDUAREN MOTORRA	47
2EN PROPOSAMENA: ETXEKO LANAK EGITEN DAKIT	51
NIRE PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	54
SARRERA	54
ADIN TARTEA.....	54
GAI HAU LANTZEAREN ZERGATIA.....	55
METODOLOGIA.....	56
CURRICULUMA	56
PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN AURKEZPENA.....	58
HELBURUAK.....	58
JARDUEREN AZALPENA	59
EBALUAZIOA.....	66
ERREFLEXIO PERTSONALAK.....	66
ONDORIOAK	68
ERREFERETZIAK	75
ERANSKINAK.....	76
Erregistro taula.....	76
Nire proposameneko materiala	76

INTRODUCCIÓN

En los últimos se está avanzando hacia una sociedad igualitaria y sin diferencias entre géneros. Aún así, aunque no sea al mismo nivel que hace años, sigue habiendo casos donde se dan diferentes situaciones, habitualmente inconscientes, en las que destaca la desigualdad entre géneros.

Esta desigualdad entre géneros se ve reflejada en los estereotipos de género que la sociedad ha ido creando a lo largo de los años. Estos estereotipos los podemos encontrar integrados en diferentes situaciones del día a día, y están tan integrados que algunos pasan desapercibidos. Es verdad que algunas de las diferencias que se dan entre géneros son muy evidentes en la sociedad. Por ejemplo, en algunos países la mujer no tiene la oportunidad de trabajar fuera de casa, a diferencia de otros donde sí pueden, aunque la mayoría cobren menos que un hombre por el simple hecho de ser mujer. Pero también se dan otras muchas desigualdades que no son tan evidentes, por ejemplo, relacionar el color azul con los niños y el rosa con las niñas, o que ciertos juegos como pintar, jugar con muñecas o saltar a la comba sean acciones ligadas a las niñas, y jugar con el balón o con los coches, correr o jugar a los super héroes estén ligados a los niños.

Esta última idea es la que me ha hecho reflexionar y utilizarlo como base para este Trabajo de Fin de Grado (TFG). El objetivo principal ha sido ver hasta qué punto se dan estos estereotipos en edades tempranas y analizar diferentes estrategias para trabajar el tema en las aulas. Para este trabajo he analizado actitudes y materiales personales en los niños y niñas mientras jugaban en el patio del colegio donde he realizado el periodo de prácticas. Estas actitudes eran principalmente separarse por géneros para jugar; es decir, las niñas jugaban por un lado y los niños por otro; pero sobre todo están relacionadas con el tipo de juego al que solían jugar tanto niños como niñas.

Dichas actitudes están ligadas al tipo de ideologías que reciben los alumnos en el día a día por las propias familias, amigos, diferentes imágenes, la escuela, etc. Aunque es lo que se tiende a hacer, no podemos responsabilizar al personal docente de este tipo de actitudes, ya que la formación para conocer y tratar el género en el aula se empezó a integrar hace poco. Aún así, esta formación es cada vez más frecuentes en todas las escuelas. Por ello sigue siendo muy necesaria la investigación de este tipo de conductas inconscientes en el profesorado, para poder reflexionar sobre cómo las podemos trabajar las diferencias de géneros desde edades tempranas.

Por todo esto, el tema principal de este trabajo es el género y los estereotipos de género en la Educación Infantil. Para alcanzar los objetivos se analizarán cómo se interiorizan los estereotipos de género teniendo en cuenta el poder del entorno en su transmisión.

Una vez realizada esta reflexión, he analizado los diferentes objetos personales de los niños y niñas en Educación Infantil, concretamente las batas y mochilas para conocer qué tipo de estereotipos de genero pueden recibir a través de estas. Con el objetivo de seguir informándome sobre el tema, he analizado dos unidades didácticas para trabajar el género y los estereotipos de género en el aula realizadas por dos profesoras de la escuela de primaria San Miguel de Santesteban.

Teniendo claras las ideas explicadas anteriormente, el siguiente y último paso de mi proyecto ha sido crear una propuesta didáctica para trabajar los estereotipos de género en el aula. La propuesta didáctica ha sido creada con la intención de ponerla en práctica en un futuro, ya que, en este periodo de prácticas debido varias circunstancias, no he tenido oportunidad de llevarla a cabo.

El tema elegido para este proyecto ha sido analizar cómo se interioriza el género y los estereotipos de género en la educación infantil.

HELBURUAK/ OBJETIVOS:

Estos son los objetivos que se pretender lograr durante el desarrollo de este TFG:

- Conocer y desarrollar diferentes conceptos relacionados con el sexo y el género para poder tener una visión más amplia sobre el tema.
- Analizar hasta qué punto se ven reflejados los estereotipos de género en los y las niños y niñas de Educación Infantil.
- En el caso de que dichos estereotipos se vean reflejados, reflexionar sobre cómo se puede trabajar el género en el aula para intentar cambiar estas ideas.
- Conocer diferentes estrategias que se han creado para trabajar los estereotipos de género en las aulas de Educación Infantil.
- Diseñar una propuesta con intención de llevarla a cabo en un futuro, la cual será creada desde mi punto de vista y se desarrollara diferentes actividades para trabajar los estereotipos de género.

1. MATERIALAK ETA METODOA

Lan hau hiru ataletan banatua dagoela erran dezakegu. Oinarrian sortutako proposamen didaktiko bat dagoen arren, hau aurrera eraman ahal izateko jakin beharreko zenbait kontzeptu edo terminoen azalpena aurkituko dugu, hau da, atal teorikoa deituko diogun hori. Atal hau gerora landuko ditugun ariketa horiek egiteko argi izan beharreko ideia batzuk antolatzeke atala dugu. Behin ideia hauek argi izanda, proposamen didaktikoa aurkitu

dezakegu, eta bertan 5 urteko gela batean egiteko zenbait ariketa izanen ditugu, baita zein helbururekin egingen diren azalpena egonen da, edota zein eduki landuko ditugun azaltzen den atala ere. Ebaluazioa nola egingen den ere azalduko da atal honetan. Bukatzeko hausnarketa atala aurkitu dezakegu, eta hau hasierako atal teorikoan aurkitzen ditugun kontzeptu teorikoak argi izanda eta egindako proposamen didaktikoan izandako emaitzak kontuan izanda sortutako atala da. Atal honetan lanean zehar ateratako zenbait ideia eta hausnarketa azalduko ditut.

Hurrengo lerroetan atal bakoitzean erabiliko diren material eta metodoak azalduko ditut:

A) Bilaketa bibliografikoa eta marko teorikoaren osaketa

Atal teorikoa osatzean zenbait termino aipatzea garrantzitsua iruditu zait, aurrerago egingo dudan proposamen didaktikoa ulertzeko kontzeptu hauek argi izatea beharrezkoa baita. Termino hauek genero eta sexuan oinarrituak izan dira, eta haien arteko bereizketa argi uzteko lehenik eta behin bi kontzeptu hauek deskribatu ditut, sexua eta generoa. Honetarako Google académico-an sexua eta generoaren arteko ezberdintasunak azaltzen dituen zenbait testu erabili ditut.

Behin kontzeptu hauek argi egonda, sexua eta generoaren mundua ulertzeko kontzeptu hauek argitzea ezinbertzekoa iruditu zait: sexu biologikoa, identitate sexuala, orientazio sexuala eta genero adierazpena. Sexualitatea ulertzeko zenbait modu daudela azaltzea izan da hurrengo fasea, eta kontzeptu hauen barruan zenbait azpi kontzeptu azaldu ditut. Kontzeptu hauek ongi ulertzeko youtube-ko zenbait bideo ikusi ondoren, Google académico zein NUP-eko errepositorioan irakurritako testuetatik ateratako informazioan oinarrituz sortu dut atal hau.

Oinarri teorikoarekin jarraitzeko, nire lanaren helburu nagusia den hori azaltzeari ekin diot. Genero estereotipoak zer diren azaldu ondoren, hezkuntzaren barruan genero estereotipoak noiz eta non ematen diren azaldu dut. Honetarako curriculumaren eta curriculum ezkutuaren behaketa beharrezkoa izan da, eta informazio hau 23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzearako curriculumaz aztertuz atera dut. Curriculumean ematen den oinarri teorikoa gelan isladatzen den edo ez ikusi ahal izateko egin dut behaketa hau, eta askotan teorian ikusten dena praktikan eskoletan isladatzen ez dela ikusteko baliagarria izan da.

Atal honekin bukatzeko gaia arte hezkuntza baliabide gisa erabiliz Hezkuntzako ikasgela batean landu daitezkeen zergatia azaltzeaz gain, lantzeko dauden modu ezberdinak aipatu ditut. Hau azaltzeko zenbait iturri ezberdin erabili ditut, baina batez ere artea eta hezkuntzaren inguruan egindako zenbait tesietan aurkitutako informazioa erabili dut atal hau osatzeko, eta modu honetan oinarri teorikoari itxiera emateko bidea.

B) Haurren sexu/genero estereotipoen behaketa

Nire lana proposamen didaktiko bat osatuz bukatuko dut, baina hori egin aurretik haurrek ikasgelan sexu/genero estereotipoak aztertuko ditut. Proposamena zein behaketa nola izan den aurrerago azalduko dudan arren, orain behaketa honen testuingurua azalduko dut.

Behaketa aurrera eraman ahal izateko lehenengo pausua tutoreei baimean eskatzea izanen da, eta haien baimena eskuratuta behaketa egiten hasi nintzen. Lehenik eta behin ikasleek ikasgelara ekartzen dituzten materialak behatu ditut. Egia da ez dituztela material asko ekartzen, hori dela eta, egunerokoan errepikatzen diren materialetan oinarritu naiz: mantala eta motxiletan hain zuzen ere. Hauek zer nolako koloreak zein irudiak dituzten behatu ditut, mutilek kolore arroxeko materialak dituzten adibidez, edota soilik neskek erabiltzen dituzten kolore horretako materialak. Aurretik aipatu dudan bezala, ikasgelan umeei haien artean dituzten jarrerak edota jolasteko moduak ere aztertu ditut, honetatik genero estereotipoekin lotua dagoen jarreraren bat antzematen dudan ikusteko.

Behaketa hau aurrera eramateko Doneztebe herrian dagoen San Miguel ikastetxeko 3 urteko bi geletan egitea erabaki dut, bertan burutu baititut bigarren zein hirugarren praktikaldiak, eta umeen materiala behatzeko erraza izan daitezkeela iruditu zait, haiekin gelan bainago egunero. Erran bezala, Doneztebe herrian dagoen ikastetxea dugu San Miguel ikastetxea, eta Doneztebe Malerreka bailaran dago eta demografia aldetik handiena dela erran dezakegu. Bertako eskolara inguruko herritako ikasleak joaten dira. Gela honetan zehazki Elgorriaga, Donamaria, Behitza-Labaien edota Ezkurrako ikasleak daude. Ikasle kopuruari dagokionez 15 ikasle daude gela bakoitzeko.

Eskola honetan 306 ikasle matrikulatu dira 2021-2022 ikasturtean. Ikasle horietako 89 Haur Hezkuntzan daude eta 217 Lehen Hezkuntzan. Haur Hezkuntza hiru urtetan banatzen da, 3 urteko gela, 4 urteko gela eta 5 urteko gela. 3 urteko gelan 24 ikasle daude. Bi gela sortzeko minimora ez direnez iristen, gela bakarra dago, nahiz eta laguntzako irakasleak egon.

4 urtekoak, berriz, 2 gela daude, batean 18 eta bertzean 19 ikasle daudelarik. Bukatzeko, 5 urteko bi gela daude, 23 ikasle daude gela batean eta 20 bertzean.

Gelako testuingurari dagokionez, erran bezala 3 urteko bi geletan eginen dut behaketa, Haur Hezkuntzako 2.zikloko 1.urtean hain zuzen ere. Gela honetan lan hau osatu ahal izateko umeekin ez dut inolako interakziorik izango, behaketan oinarrituko naiz eta. Behaketa hau egiteko umeei eskolara ekartzen dituzten materialak behatuko ditut. Egia da gelara ekartzen dituzten materialak ez direla asko, jantzita daramaten arropaz gain motxilak eta mantalak ekartzen baitituzte soilik. Materialen behaketan oinarrituko naizen arren, ikasleek gelan haien artean jolastean dituzten jarrerak aztertuko ditut, baita patioan jolasean ari direnean dituzten jarrerak ere.

Behaketa hau gelan sartu nintzen momentutik egin nuen, umeen materialak oharkabea behatzen hasi nintzelako. Baina materiala behatu eta tauletan erregistratzeko saio bat erabili dut gela bakoitzeko. Jarrera zein jolasei egindako behaketari dagokionez, momentuaren arabera egin ditut, aipatu bezala egoera horiek espontaneoki sortzen baitira, eta horrelakorik ematen dela ikustean oharretan apuntatuz joan naiz. Egia da azken hauen behaketa jolas librean daudenean egin dudala, orduan baita espontaneoki tankera honetako gauzak ateratzen direnean, nahiz eta egia den agian ariketa bideraturen batean ere egoeraren bat eman dela.

C) Behaketaren ebaluazioa eta hausnarketa

Ebaluazioari dagokionez, behaketa hauek zein erregistroak errazteko ariketa batzuk talde txikietan, hau da, ikasgela 3 taldeetan banatuta 4-5 ikasleekin eginen ditut zeinbait ariketa, modu honetan ere errazagoa izanen baita behaketa egitea. Egun bakoitzean talde handian eginen ditugun elkarrizketak ere ebaluatzeko aukerak izanen dira, modu honetan egindako ariketak komentatzean ikasleek erraten dutena apuntatuz joanen naiz hau ere kontuan hartuz.

Gelan ikusten dudana guztia osatutako zenbait tauletan erregistratu dut, motxilen zein mantalen koloreak adibidez bertan erregistratuko ditut. Umeei dituzten jarrerak zein jolasak ikasgelan espontaneoki ematen diren egoerak kontuan hartuta behatu ditudanez hauek ohar moduan idatzi ditut hau egiteko sortutako ataletan. Behaketa honen informazioa modu eskematikoan hartu dut, informazioa momentuan hartzeko errazena izan delako, eta gero taula hauek lanaren eranskinetan sartzeko ditudan arren, atal praktikoko behaketaren zatian

ikusitako guztia modu zabalago batean azaldu dut, ulertzeko errazagoa izango dela uste dudalako.

Erran bezala, behatutako datu guztiak erregistro taulen bidez erregistratu ditut. Taula horien ereduak dira azpian agertzen diren hauek:

1. taula

Mantalen koloreen erregistroa.

NESKAK	MUTILAK
Arroxa	Gorria
Urdina	Berdea
Arroxa	Gorria

2. taula

Motxilen irudien eta koloreen erregistroa.

NESKAK	MUTILAK
Minnie, arroxa	Dinosaurioak, berdea
Super man, urdina	Super heroiak, urdina
Minnie, arroxa	Marrazki bizidunak, urdina
...	...

Jarrerren zein jolasen behaketak oharren bidez erregistratu ditut gelara eramandako koaderno batean hitz klabeak erabiliz, eta denbora tarte murriz horretan idazteko denbora eman didana idatziz.

Behaketa honen bidez, ikasleen artean generoen bereizketa hauek ematen diren behatzeko aukera izanen dut, baita sexu/genero estereotipoak adin tarte hain txikietan presente dauden edo ez aztertze aukera izanen dut. Behaketa honetatik ateratzen ditudan datu guztiak aurrerago egingo dudan proposamen didaktikoa osatzeko baliagarria izan zait, gaiaren inguruan informazio gehiago izateko baliagarria izan baitzait.

D) Lanaren atal praktikoa: irakasleen zein nire proposamen didaktikoak

Behin atal teorikoan azalduetako informazioa argi izanda, atal praktikoa egitera pasako naiz. Atal hau hiru zatitan banatua dago: lehenik eta behin aurretik aipatutako gelan

egindako behaketa dago, gero irakasleek gai hau lantzeko ikasgelan aurrera eramandako proposamen pare bat azaldu ditut, eta bukatzeko nik proposatutako proposamen didaktikoa planteatu dut. Azken hau kasu hipotetiko batean egiteko proposatua egonen da, ez baitut ikasgela batean aurrera eramanean.

Behaketa hau ikasleak gelan dauden saioen batean egin dut, ikasleak lanean edota jolasean ari diren bitartean aprobeztatuz. Materialen behaketa egiteko saio bat erabili dut gela bakoitzeko, eta ondoren jarriko duten taula batean apuntatu ditut emaitza guztiak. Bertzalde, umeen jarrera jolasean ari diren bitartean aztertu dut, eta hau ezin izan dut denbora tarte batera mugatu, jolasean ari diren bitartean espontaneoki ematen diren momentuak izanik, momentu ezberdin hauek erabili baititut behaketak egiteko.

Nire proposamenaren diseinua azaltzea izanen da hurrengo pausua, baina hori baino lehen Haur Hezkuntzan gai hau lantzeko egin diren bi proposamen azalduko ditut, eta hau lantzeak zer nolako influentzia eta batez ere garrantzia duen azalduko ditut. Behin hau osatuta, nire proposamen didaktikoa azaldu dut, eta hau sexu/genero estereotipoak ezagutzera eta batez ere hauek ekiditen dituen hezkuntza berdinean heitzeko bidea helburu duen proposamena da eta honetarako zenbait ariketa proposatu ditut hau lantzeko. Baina proposamen didaktikoak bere atal propioa du eta sakonago azalduko dut bertan zehazki zertan oinarrituko naizen edota zein metodologiaren bidez egiten dudana, baita zein izanen diren planteatutako helburuak lortzeko erabiliko ditudan ariketak eta nola ebaluatuko ditudan hauek.

Aipatu bezala, proposamen hau ez dut gelan aurrera eramanean, baina bi asteetan egiteko planteatua dagoen proposamen bat da. Saioen bereizketari dagokionez, aurrera eramaten den ikastetxeak momentu horretan duen antolamenduari egokitu beharko den proposamena izanen da.

E) Proposamenen ebaluazioa

Aurretik aipatu dudana bezala nire proposamen didaktikoa ez dut gela batean aurrera eramanean, eta etorkizun batean erabiltzeko helburuarekin sortua izan da. Baina hala ere, atal praktikoan egindako zati bakoitzak bere ebaluazioa zein ondorioak izanen ditu.

Ebaluazioari dagokionez, umeek izandako ikaskuntza ebaluatzeko behaketan oinarrituko naiz, eta horretarako hainbat tauletan informazioa jartzen joanen naiz ariketak egin ahala, zertarako diren gai azalduz. Modu honetan beraz, hasieran zituzten jakintzak eta

proposamena egin bitartean zein bukatu ostean dituzten jakintzekin konparatuz emandako aurrerapausuak ikusi ahal izanen dut, eta honekin hausnarketara jo.

Proposamena ez da ebaluatuko gauzak ongi edo gaizki egin dituzten erranez. Proposamen honen bidez umeei kontzientzia hartzea nahi da, eta barneratuak dituzten (barneratuak badituzte) sexu/genero rol horiei bertze enfoke bat eman eta berdintasuna sustatzen duen pentsamenduekin ordezkatzeko izanen da helburua, beraz ariketak ulertu eta ikusitakoa barneratu duten behatuz ebaluatuko da. Horregatik behaketa taula batzuk osatuko ditut non bertan ariketen bidez lortu nahi diren helburu horiek ulertu edota barnetatu dituzten edo barneratzearen bidean dauden erregistratuko ditudan.

Orokorrean beraz behaketaren bidezko ebaluaketa izanen den arren, zenbait ariketetan bertze motatako ebaluaketak egingen ditut, marrazkiekin zein irudiekin ariko gara lanean, eta hauek izanen dira ebaluaketarako erabiliko ditudan bertze tresna batzuk.

Hauek dira proposamen didaktikoa ebaluatzeko erabiliko ditudan ebaluazio irizpideak:

3. taula

Behaketaren erregistro taula.

Ebaluazio irizpideak			
Beti	Askotan	Gutxitan	Inoi ez

F) Egindako lanaren hausnarketa

Bukatzeko, hausnarketari dagokionez atal honetan erabilitako materialei erreparatuz, proposamen didaktikoan osatu eta betetako behaketa orrietan oinarrituko naiz batez ere. Hauetan bildutako informazioa kontuan hartuko dut, baita hasierako kontzeptu horiek argi izatea beharrezkoa izanen da. Bi hauek kontuan izanda egindako lanaren ostean izandako iritzi eta hausnarketa osatuko dut.

Hausnarketa edo ondorio hauetan lan guztia egin bitartean ikasi dudanaren inguruan pentsatzeko erabiliko dut. Hau da, orain arte graduko lau urte hauetan ikasitako guztia lanean zehar isladatuz baliagarria izan zaidana eta zer ikasi dudan adierazteko eta batez ere nire buruarekin hausnarketa bat egiteko izanen da baliagarria lanaren atal hau. Horretarako, orain arte egindako lan guztia kontuan hartuko dut, hau izanen baita hausnarketa hau egiteko erabiliko dudan oinarria.

2. MARKO TEORIKOA

Aurretik aipatu dudana bezala, nire lana Haur Hezkuntzako geletan genero eta genero estereotipoak nola ematen diren aztertzeraz bideratuko dut, umeen material zein jarrerak aztertuz, gaia lantzeko ematen diren estrategia ezberdinak aztertuz, edota generoa lantzeko proposamen bat sortuz.

Baina atal praktikoan murgildu aurretik ezibertzekoa da zeinbait kontzeptu edota idei argi uztea, gerora landuko dena errazago ulertzen lagunduko baitute. Aipatzekoa da ere lan honetan generoa eta genero estereotipotik oinarritutako naizen arren, ondotik aipatutako diren kontzeptu guztiak elkar lotuak daudela, eta genero eta genero estereotipoekin zerikusituz zuzena dutela. Hori dela eta, ezinbertzekoa iruditzen zait lehenik eta behin sexua eta generoa kontzeptuak argi geratzea, gerora gainontzeko kontzeptuak azaltzeko.

2.1 Sexu eta generoaren arteko berezitasuna

Generoa da lan honen gairik nagusienetakoa bat. Sexua eta genero kontzeptuak maiz nahasi egiten dira, eta oker erabiltzeko tendentzia handia dago. Hori dela eta, bi kontzeptu hauen ezberdintasuna argitzea da lehenengo lana. Sexua kontzeptu biologikoa da, eta gizonak eta emakumeak definitzen dituzten ezaugarri biologikoei egiten die erreferentzia. Generoa berriz, kultura jakin batean sexuaren arabera gizarteak eraikitako rol, jokabide edo jarduerak dira. Baina hainbat adituek diotenez, sexua eta genero kontzeptuen erranahia hareago doa.

Sexua, biologiaren ikuspuntutik batez ere, gizon edo emakume gisa definitzen dituzten gizakien ezaugarri biologiko, anatomiko fisiologiko eta kromosomikoak dira eta hauek jaiotzetik dituzten ezaugarriak dira, ezaugarri unibertsalak beraz, gizarte eta kultura guztietan berdinak eta noski, aldaezinak direnak. (Herrero y Cañaveras, 2007).

Generoa berriz, kultura eta une historiko bakoitzean eraikitzen diren ideia eta sinesmen sozialen multzoa da, eta hauek sexu-desberdintasunean oinarritzen dira. Genero ikuspegiak kontuan hartzen ditu gizonak eta emakumeak dituzten aukerak, haien arteko harremanak eta sozialki esleitzen zaizkien rol ezberdinak. (Jayme, 2017)

Euskaltzaindiaren hiztegiak sexua arra eta emea bereizten dituen ezaugarri fisikoaren multzoa dela dio. Kasu honetan beraz, aurretik aipatu bezala, kontzeptu biologikoari egiten dio erreferentzia. Generoari dagokionez, "Gizarte zientzietan, kultura jakin batean, norbait

gizasemetzat edo emakumetzat hartzeko, kontuan hartzen diren ezaugarrien, jarreraren eta eginkizunen multzoa” dela dio euskaltzaindiaren hiztegiak, eta aurretik aipatu bezala, kultura eta gizarteari lotutako kontzeptua dela defendatzen du.

Baina bi kontzeptuen kasuan egiten den bereizketa erabat binarioa da, eta aurrerago zehaztuko dudan arren, sexua zein generoa ikusi eta sentitzeko bertzen hainbat modu daudenez, hau zalantzan jartzen duten hainbat teoria daude. Sexua kontzeptu biologiko hutsa baino askoz ere gehiago dela defendatzen duen teoria nagusienetako bat “Queer” teoria da (Posada Kubissa, 2014).

Queer teoriak (Posada Kubissa, 2014), konstruktibismo feminista garaikideak bezalaxe identitate generikoa eta sexuala datu naturalak ez direla dio, eta biak kultura eta gizarte prozesuen bidez eraikitzen direla defendatzen du. Hori dela eta, teoria honek argi uzten digu jaiotzetik ezaugarri batzuk edo bertzeak izateagatik ez garela talde batean edo bertzean sartu behar, baizik eta izateko moduak eta jokatzeko moduak sailkatzen gaituela talde horietan. Eta izateko eta jokatzeko modu horiek heziketa batek bideratzen ditu, bai eskolan baita etxean ere.

Gainera, bertze hainbat adituek ere bi kontzeptu hauek definitzeaz gain, ikuspuntu ezberdinak eman dituzte. Hala nola, Perezek (2020) bere proiektuan aipatzen duen moduan, genero kontzeptua pasaden mendeko hirurogeita hamargarren hamarkadatik gutxi gorabehera espazio akademikoetan erabiltzen da, ordura arte emakumeen ikasketa deiturikoen berezitasuna prestigiatu, ikusarazi eta berraztertzeke.

Ikasketa horiek balio gutxiago zutela erraten zen, *emakume* hitza izate hutsagatik (Pérez, 2020). Hori dela eta, ixiltasunetik ateratzeko, hasiera batean, genero hitza horretarako erabiltzen hasi zen, nahiz eta genero eta emakume hitza sinonimoak ez ziren. Emakumeei buruzko ikasketa horiek agerian uzten zuten emakumeen bizi-ibilbideek ez zirela soilik beren kezka, interes eta erabakiei erantzuten, baizik eta gizonen bizi-ibilbideekin estuki lotuta zeudela.

Egia da gure identitatea beste batzuekin harremanetan eraikitzen dugula, orduan ez dago alde aurretik ezarritako paturik gizon edo emakume jaio izanagatik. Generoaren nozioak ere ideia hori gordetzen du, sexu biologikoari esentzia bat ematen dion begirada gaindituz. (Pérez, 2020) egia

Jaymek (2007) bere artikuluan defendatzen duen moduan, sexua eta generoa gizakiak irizpide jakin batzuen arabera sailkatzeko balio duten bi aldagai dira. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, generoa terminoak partzialki edo erabat ordezkatu zuen sexuaren kontzeptua, pertsonen errealitate biologikotik gehiago adierazten dituzten eduki soziokultural eta psikologikoko desberdintasunak sailkatzeko erabili zen.

Beraz, aurretik aipatu bezala sexu eta genero kontzeptuak askoz ere konplexuagoak dira, eta ez dira nahiko gizakiak taldekatzeko. Jaiotzetik ditugun ezaugarriak edozein direla eta, izateko eta jokatzeko moduak egiten gaituzte garen bezalakoak (Lamas, 2000), eta hau horrela izatearen bideetako bat heziketa da. Eskolak beraz sekulako garrantzia du hau irakastearen bidean.

2.2. Sexua eta generoaren mundua ulertzeko hainbat kontzeptu

Gizakia izaki "sexuadoa" da, organo sexuarekin jaiotzen delako. Izaki bakoitzak pertsona sexuadoa izatearena modu berezi batean bizitzen du, eta ekintza honi sexualitatea deritzogu. Baina forma bakarra al dago sexualitatea ulertzeko? Ba erantzuna ezetz da, sexualitatea ulertzeko forma aunitz daude.

- SEXU BIOLOGIKOA: gizakiek dituzten ezberdintasun biologikoei egiten die erreferentzia, hau da, gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasunak hartzen ditu kontuan. Hauek dituzten genital, kromosoma eta hormonak hartzen dira kontuan bereizketa hau egiteko. (Pérez, 2017).

Adibidez:

- Zakila eta barrabilak izanda eta kromosoma XY bada, sexu biologikoa gizonezkoa izanen da.
- Alua eta obarioak izanda eta kromosoma XX bada, sexu biologikoa emakumezkoa izanen da.

Sexu biologiko hauek jaiotzetik kontuan hartzen dira emakumea edo gizona zaren erabakitze eta honen arabera izen bat edo bertze aukeratzeko.

- IDENTITATE SEXUALA: genero identitatea ere deritzogun kontzeptu honek *zu nola sentitzen zaren* azaltzen du. Hau da, bizimodu hau guztiz subjektiboa da eta sexu biologikoarekin bat etorri daiteke edo ez (Jayme, 2007).

Adibidez:

- Gizonezkoa sentitzen bazara, zure identitate sexuala gizonezkoa izanen da.
- Bertzalde emakumea sentitzen bazara, zure identitate sexuala emakumezkoa izanen da.

Baina badira bi adibide hauetaz gain bertze batzuk ere (Pérez, 2017):

- GIZONEZKO TRANTSESXUALAK: gizonezko batzuk zakila dute, baina badira bertze aunitz aluarekin jaino eta gizonezko sentitzen direnak.
 - EMAKUMEZKO TRANTSESXUALAK: Bertzalde, badira emakume aunitz aluarekin jaiotzen direnak, baina badira bertze aunitz ere zakilarekin jaino arren emakume sentitzen direnak.
 - CISEXUALAK: sexu biologikoak identitate sexualarekin kointziditzen duten pertsonak.
- ORIENTAZIO SEXUALA: kontzeptu honek gustuko duzun edo erakartzen dizun sexuari egiten dio erreferentzia. Erakartzen hau emozionalki, sexualki eta afektiboki izan daiteke eta bi azpi atal sortzen dira kontzeptu honen barruan ere:
 - HOMOXESUALAK: sexu berdineko pertsonengatik erakarriak sentitzen diren pertsonak.
 - HETEROSEXUALAK: kontrako sexuko pertsonengatik erakarriak sentitzen diren pertsonak.
 - GENERO ADIERAZPENA: gizartea da gizon edo emakumea izate hutsagatik modu batean edo bertzeak jokatu behar dugula zehazten duena (Jayme, 2007).

Adibidez:

- EMAKUMEA: emakumea bazara ile luzea eraman behar duzu, edota gonak jantzi, edota dantza gustukoa izan behar duzu. Jarrerari dagokionez, modu fin eta goxoan jokatu behar duzu, inolako zakarkeriarik gabe, edota hitz itsusiak erratea debekatua duzu.
- GIZONA: Bertzalde, gizona izateagatik jarrera hauek edota janzkerak ezberdinak dira. Futbola edo kotxeak gustatu behar zaizkizu, edota ezin duzu gonarik jantzi, soilik galtzak jantzi behar dituzu. Jarrerari dagokionez, modu bortitzean jokatu dezakezu, eta hitz itsusiak erranez gero ongi ikusiak daude.

Orain arte aipatutako guztia aztertzen badugu, ikusi dezakegu kontzeptu bakoitzaren barruan bi azpimultzo egiten direla, hau da, sistema sexual bitarra egiten da. Urteak atzera bereizketa hau beti egin izan da modu honetan, eta soilik bereizketa hauek zeuden ongi ikusiak. Baina urteak aurrera egin hala gizarteak ere aurrera egin du, eta gizartea sistema bitar hori baino askoz ere konplexuagoa da, eta argi dago kontzeptu hauen barruan askoz ere azpimultzo gehiago daudela. Beraz, azpimultzo hauek nola banatzen diren ezagutzea ezinbertzekoa da. Honetarako Pérezek (2017) egindako bideoan aipatutako terminoetan oinarrituz gerora egingo duguna ulertzeko ezinbertzekoa izanen da hauek ezagutzea:

- **SEXU BIOLOGIKOA:** iada aurretik azalduta zer den sexu biologikoa, aipatzekoa da hainbat pertsona jaiotzen diren ugalketa zein sexu anatomia ez dator bat azaldutako kontzeptu binarioarekin, hau da, gizon eta emakumetik hareago doa.

Adibidez:

- Pertsona batzuk bi sexu-organoekin jaiotzen dira.
- Pertsona batzuk XXY kromosomekin jaiotzen dira, eta bertze batzuk aldiz XO kromosomekin.

Tankera hauetako ezaugarriak dituzten pertsonak intersexual hitzaren barne hartzen dira.

- **GENERO IDENTITATEA:** pertsona asko gizonezkoak edo emakumezkoak sentitzen dira, baina sentitzeko bertze hamaika modu badira ere, hala nola:
 - **BIGENEROA:** aldi berean emakume eta gizon sentitzen diren pertsonak.
 - **DEMIGENEROA:** partzialki emakumeak eta partzialki gizonezkoak sentitzen diren pertsonak.
 - **AGENEROA:** ginozezko eta emakumezkoak sentitzen ez diren pertsonak.
 - **GENERO FLUIDOAK:** denboraldi batez gizonezkoak sentitzen direnak, eta bertze denboraldi batez emakumezko sentitzen direnak.
 - **HIRUGARREN SEXUKO PERTSONAK:** genero kontzeptuaren barne definitzen ez diren pertsonak.

Beraz, ikusi dezakegun moduan identitate sexuala gizon edo emakume sentitzetik askoz ere haratago doa.

Genero identitatea gizabanakoak ezaugarri biologikoetan oinarrituta bere gorputz irudiari buruz egiten duen judizioa da. Genero-identitatea aldiz, autoklasifikazio-judizio bat

da, historian zehar bi sexu kategoriak (gizon eta emakume) kulturalki osatzen joan diren alderdietan oinarrituta.

- **ORIENTAZIO SEXUALA:** aurretik aipatutakoa soilik emakumeengatik edo gizonengatik erakarria sentitu zitezkeen pertsonak aipatu dira. Baina badira orientazio sexuala bizitzeko bertze modu batzuk ere:
 - Bisexualitatea: gizonengatik eta emakumeengatik erakarriak sentitzen diren pertsonak.
 - Pansexualitatea: pertsonak gustuko izatea haien sexua eta generoa zein den kontuan izan gabe.
 - Asexualitatea: inolako sexurik erakartzen ez duen pertsona.
- **GENERO ADIERAZPENA:** argi dago ez daudela soilik maskulino edo femeninoak sentitzen diren pertsonak. Pertsona guztiek ez dituzte gustu edo interes berdinak, pertsona guztiek dituzte egoera baten aurrean jokatzeko modu ezberdinak, edota gustukoak dituzten hainbat kolore adibidez.

Atal honen barruan beraz, kontzeptu nagusi bat dugu eta honako hau da:

- Genero androginoa: femenino edo maskulino taldeen barruan sailkaezina den pertsona, bi generoen barruan sailkatuak dauden trazuak modu orekatuan baititu.

2.3. Genero eta genero estereotipoak

Behin generoa zer den ezagututa, genero estereotipoak zer diren azaltzea gustatuko litzaidake. Baina lehenik eta behin, estereotipoak zer diren azaltzen hasiko naiz, kontzeptu honen berri izatea garrantzitsua dela uste baitut. RAE (Real Academia Española) hiztegiaren arabera, estereotipo hitza “Estereotipoa talde edo gizarte batek modu aldaezinean onartzen duen irudia edo ideia da”. Beraz, genero estereotipoak generoaren inguruan gizarte edo talde batek sortu eta onartutako ideiak dira, eta hauek pertsonen jaiotzetik aplikatzen zaizkie (Lemus, Moya, Bukowski y Lupialez, 2008).

Estereotipo hauek sekulako eragina dute gizarte-taldeein buruzko informazioa sortzerako orduan, baita gure zein bertzeen jokatzeko moduan ere eragiten dute. Genero

estereotipoak identitate eta ideologiaren sinesmenekin batera, emakume edo gizonezkoen kategoriazioa jokabide diskriminatzaileen bidez burutzera bideratuak daude (Castillo-Mayén y Montes 2014).


Beraz, genero estereotipotzat ulertzen dugu kultura edo talde baten barruan genero bakoitzaren inguruan partekatuak dauden ezaugarriak direla. Genero estereotipo hauek pertsonen garapen integrala mugatzen dute, baita trebetasunak, nahiak edo emozioetan eragin zuzena dute, hauek ere mugatuak baitira. Eta noski, emakumeak ateratzen dira galtzaile historio guzti honetan, hauek baitira ahultzat gelditzen direnak. (Castillo-Mayén et al. 2014).

Castillo-Mayén et al. (2014) haien artikuluan dioten moduan, estereotipo hauek, bi generoen arteko bereizketan egiten dira. Hau da, gizonezkoa edo emakumezkoa izanda modu batean edo bertzean jokatu behar da, baita gustu edo afizio zehatz batzuk izan behar dira. Adibidez, gizonezkoak orokorrean hausartak izan behar dira, eta ez dute negar egiten ahal, indartsuak direla azaleratu behar baitute. Gainera, autoak edo motorrak gustatu behar zaizkie, kolore berde edo urdineko arropa jantzi behar dute, eta noski, ez dute gona edo soinekorik jantziko. Neskak, arrosa koloreko jantziak edo jostailuak izan behar dituzte, eta panpinekin edo etxeko jolas sinbolikoetara jolastu behar dute. Gainera, goxo jokatu behar dute, eta indarra ezin dute azalerazi jolasetan ezta egunerokotasunean ere.

CEPA zentruak ikerketa bat egin zuen, eta bertan seme-alabei erosten diren opariak aztertu zituen, eta hauek izan ziren lortutako datuak:

1.irudia

Nesken ohiko jolasak




Nesken ohiko jolasak, centro de Economía Política Argentina (CEPA), 2019.

<https://www.centrocepa.com.ar/informes/129-que-regalamos-a-nuestros->

2.irudia

Mutilen ohiko jolasak



Mutilen ohiko jolasak, centro de Economía Política Argentina (CEPA), 2019.

<https://www.centrocepa.com.ar/informes/129-que-regalamos-a-nuestros->

Estereotipo guzti hauek urteetan zehar gizartean sortuak izan dira, eta aipatutakoak gaur egungo gure gizartean ditugun hamaika estereotipoetako gutxi batzuk soilik dira. Ideia hauek gutxinaka aldatuz doaz, baina hala ere egunerokoan bizitzen ditugu, eta jaio aurretik, zeharka bada ere, jasaten ditugu. Gurasoek haien umeak jaio aurretik izena pentsatzen dute, eta hau umearen sexua jakin bezain pronto egiten dute. Orokorrean, mutila bada izen batzuk pentsatzen dituzte, eta neska bada, bertze batzuk. Gainera, arropa edota gela apaintzeko kolore ezberdinak erabiltzen dituzte neska edo mutila bada, hala nola mutilentzat urdina erabili ohi da, eta neskentzat berriz, arroxa.

Genero estereotipo hauek jaiotzetik bizi dituzte umeek, eta hazi ahala gizartean dauden mezu eta ideiekin etengabe indarra hartzen jarraitzen dute. Eskolara iristean ere hauek sekulako garrantzia izaten dute. Eskola izan daiteke genero estereotipo hauekin puskatu eta ideia hauek aldatzeko bide bat sortzeko aukera izan dezakeen leku bat. Baina, ba al dago hezkuntza ideia aldaketa horren bidean?

2.4. Hezkuntza eta genero estereotipoak: curriculum eta curriculum ezkutua

Aurretik aipatutakoari jarraipena emanda, eskolak lan handia du gizartean eraiki diren genero-estereotipoekin hautsi eta ikasleei bertze ideia eta ikuspegi batzuk ematen. Gaur egungo hezkuntza curriculum batean oinarrituz egituratzen da, eta hezkuntzaren alor

bakoitza foru dekretu batean adostutako puntuak kontuan izanda eramaten dira aurrera. Foru dekretu horien barruan curriculumak daude, eta hauetan zehazten da hezkuntza etapa bakoitzean aurrera eraman behar diren eta kontuan hartu behar diren gauzak. Baina, zer da curriculumak zehazki?

Curriculumak irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren bidez igorri nahi diren kultur eduki adierazgarrien hautaketa eta antolaketa da. Curriculumean zehazki irakaskuntza bakoitzean irakatsi behar dena zehazten dituzten elementuak aipatzen dira, eta ikasketak hau emateko prozesuak zein diren arautzen ditu.

Hezkuntza etapa guztiek ez dituzte curriculum berdinak erabiltzen, etapa bakoitzeko curriculumak foru dekretu zehatz batek bermatzen du. Dakigun moduan, Haur Hezkuntza bi etapetan bereizten da, alde batetik 0-3 urteko hezkuntza dugu, eta bertetik 3-6 urtekoen etapa.

- *28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa*, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena da eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena. Foru dekretu honek Nafarroako Foru Komunitateko haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen du, hau da, 0-3 urte bitarteko zikloa.
- *72/2012 FORU DEKRETUA, uztailearen 25ekoa, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua* aldatzen duena. Horren bidez, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautu eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezarri ziren. Foru dekretu honen xedea Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa eta ziklo hori ematen ahal duten ikastetxeen ezaugarriak arautzea, eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta zikloaren hezkuntza edukiak ezartzea da. Halaber, ikastetxe horiek sortu edo baimentzeko prozedura ezarri da.
- *23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa*, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen duena da. Foru dekretu hau martxoaren 19an sinatu zen eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloa arautzen du, 3 urtetik 6 urterainoko zikloa, hain zuzen ere. Foru dekretu honen helburua haurrei garapen fisiko, afektibo, sozial eta intelektuala lortzen laguntzea da. Xedeak berriz, izaki sozialak

izateko prestatzeko helburua du eta norberaren garapen pertsonalari ere garrantzia ematen dio.

Azken foru dekretu hau da lanean zehar aipatuko dena da, hau baita adin tartea zehazten duena. Hori dela eta foro dekretu honek generoa eta genero-estereotipoak nola lantzen dituen aztertzea izanen da lehenengo lana. Curriculumaz aztertuz gero 3 arlotan banatzen dela ikusten dugu. *Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala, ingurunea ezagutzea eta hizkuntza: komunikazioa eta adierazpena* dira hiru arlo hauek. Arlo hauek gainera, helburu eta eduki zehatz batzuk osatzen dute, eta generoaren gaia zehazki aipatzen ez badute ere, zeharkako modu batean jorratzen dute, modu orokorrean aipatzen direnez kontuan hartzen baitira.

Baina aurretik ere, hezkuntza printzipioak aipatzen dira curriculumean, eta hemen ere generoa eta genero estereotipoak lantzen dira zeharka bada ere. Honakoak dira hezkuntza printzipio horiek:

- Sormen, konfiantza, erantzukizun eta zentzu kritikoz banaka nahiz taldean prestatutako proiektuak imajinatu, abian jarri, burutu eta ebaluatzeko gaitasunaren garapena.
- Bizikidetasuna eta elkarrenganako errespetuan oinarria duten balio eta praktika demokratikoen bidez gatazkak konpontzea.
- Indarkeriaren aurkako jarreraren garapena, genero berdintasunaren sustapena eta eskolaesparru guztietatik kultura desberdinetara hurbiltzea eta haiek aintzat hartzea
- Ikastetxeen eta familien arteko elkarlana, batez ere, arrazoi bat edo beste dela, premiarik handiena dutenekin.

Hezkuntza printzipio hauek aztertuta gizarteak sortu dituen ideia eta beraz genero-estereotipo horiek landu eta bertze ideia alternatibo batzuk garatzeko bidean daudela ikusiko dugu. Gainera, curriculumeko arloak aztertuta ere, modu orokorrean aipatzeaz gain, genero-estereotipoak lantzea barne har daitekela ikus dezakegu:

NORK BERE BURUA EZAGUTU

“Etapan honetan zehar inguruarekin dituzten esperientziak laguntza eman behar diete beren gorputza globalki eta partzialki ezagutzeko, hala nola beren pertzepzioaz eta mugimenduen ahalmenez ohartzeko, beren sententzioak identifikatu eta haiekin gozatzeko,

eta gorputzaren adiez razpen ahalbideak erabiltzeko. Beren eta besteen ezaugarri pertsonalez ohartzea funtsezkoa da beren garapenerako eta bereizkeriazko jarrerarik ez hartzeko.”

“Sexuaren edo, jatorri sozialaren nahiz kulturalaren aldetik desberdintasunak egotea irakasleak aniztasuna tratatzeko duen tresna da, desberdintasunak errespetatu eta onartzeko harremanak sustatuz.”

- Helburuak:
 - Bere buruaz irudi egokia eta positiboa osatzeko gaitasuna, besteekiko harremanen eta norberaren ezaugarrien, ahalmenen eta mugen identifikazioaren bidez eta autoestimazioko eta autonomia pertsonaleko sentimenduak garatuz.
 - Bere gorputza, haren elementuak eta funtzio batzuk ezagutzeko gaitasuna, jardun eta adierazteko aukerak ezagutzekoa eta keinu eta mugimenduak gero eta zehatzago koordinatu eta kontrolatzekoa.
 - Bere sentimenduak, emozioak, beharrak edo lehentasunak identifikatzeko gaitasuna, hala nola haiek besteei azaldu eta komunikatzekoa, besteenak ere identifikatuz eta errespetatuz.
 - Eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko ohiko jarduerak eta eginkizun errazak modu autonomoan egiteko gaitasuna; horrela, autokonfiantzako sentimendua eta ekimenerako gaitasuna handitu eta bere oinarritzko beharrak asetzeko estrategiak garatuko ditu.
 - Bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitzeko gaitasuna, errespetuko, laguntzako eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak garatu eta mendetasuneko nahiz nagusitasuneko jokabideak baztertzeke.

- Edukiak:
 - Giza gorputza. Nork bere gorputza aztertzea. Nork bere ezaugarriak pixkanaka identifikatu eta onartzea. Gorputz eskema.
 - Nor bere aldaketa fisikoaz eta denbora igarotzearekin duten loturaz ohartzea. Erreferentzia espazialak norberaren gorputzarekiko.
 - Bere eta besteen sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta azaltzea. Nork bere sentimenduak eta emozioak gero eta hobeki kontrolatzea
 - Desberdintasunak modu positiboan baloratu eta errespetatzea, besteen identitatea eta ezaugarriak onartzea eta bereizkeriako jarrerak baztertzea.

INGURUNEA EZAGUTZEA

- Helburuak
 - Gero eta modu egokiagoan eta pozgarriagoan besteekin harremanetan jarri eta jokabide sozialeko arauak pixkanaka barneratu eta beren jokabidea horietara egokitzekoa.
 - Beren esperientziatik hurbil dauden talde sozialak eta haien ezaugarri, kultur agerpen, balio eta bizimodu batzuk ezagutu eta haien aldeko konfiantzako, errespetuko eta estimuko jarrerak sortzekoa.
- Edukiak:
 - Familia eta eskola kidesuneko lehenbiziko talde sozialak diren aldetik. Haien existentziaren beharraz eta funtzionamenduaz ohartzea, eguneroko bizitzan betetzen duten zereginaren adibideak emanez. Haietan ezartzen diren harreman afektiboak baloratzea.

HIZKUNTZAK, KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIKAPENA

- Helburuak:
 - Sentimenduak, nahiak eta ideiak adieraztea bai ahozko hizkuntzaren bidez, bai bestelako hizkuntzen bidez, eta beren asmora eta egoerara hobekien egokitzen dena aukeratzea

Curriculum zabala da, eta urteetan zehar eman den irakaskuntza klasiko eta binariotik at landu nahi dituen helburu zein edukiak dituela ikusi dugu. Teoria hor dagoela ikusi dugu, baina errealitatean gero hori gertatzen ahal da?

Kontua da gero gelan askotan gertatzen diren ekintzak ezberdinak direla, eta gauza oso txikitatik hasita puskatzen direla ideia hauek. Genero estereotipoak kontrukzio sozialak dira, ez dira berezkoak, eta sarritan konturatu gabe den arren, ikasgela barruan modu ezberdinetan sustatzen dira. Eta honi curriculum ezkutua deritzogu.

Curriculum ezkutua irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan eta orokorrean ikastetxean eta batez ere ikasgeletan egunerokoan ematen diren elkarrizketetan zein ekintzen bidez eskuratzen diren ezagutza, trebetasun, jarrera eta balore guztiak dira. Lorpen hauek ez dira esplizitate nahita lortzek hezkuntza xedeak bezala, baina modu inkoszientean ematen dira. Inplizituki funtzionatzen duen irakaskuntza da, eta kultura, eduki edota errutinen barruan ematen dira (Acaso y Neure, 2005).

Curriculum ezkutua hezkuntza-testuinguru batean inplizituki transmititzen diren edukien multzoa da. Jackson pedagogo oparamerrikarrak *La vida en las aulas* (Acaso et al, 2005) obran terminoa sortu zuen eta ikerketa askoren gaia izan da, batez ere herrialde anglosaxoietan.

Curriculum ezkutuaren helburu nagusia hezkuntza-diskurtsoaren bidez modu esplizituan batean azaldu ezin daitezkeen gaiak (zuzenak ez direlako), modu inplizitu batean lantzea da. Hala nola, ikastetxearen posizionamendua klase sozial jakin bateko, edota arraza, genero, kultura edo erlijio baten defentsan agertzea, bertzeak deusestatuz (Acaso et al, 2005).

Aurretik aipatu bezala beraz, generoa curriculum ezkutu honetan lantzen den gaietako bat da. Eta generoaren gaiaren barruan, genero estereotipoak daude, eta ideia hauek curriculum ezkutuaren bidez transmititzen dira, eta beraz, genero-estereotipoak ere modu honetan transmititzen dira ikasgeletan. Baina, non ematen dira hezkuntzan genero-estereotipo hauen transmisioa?

Haur Hezkuntzan ikasleek etengabean jasotzen dituzte mezuak, irudietatik, marrazkietatik, koloreetatik, edota hizkuntza hutsetik ere. Hizkuntzan oinarritzen bagara gaztelanian edo ingelesean adibidez genero bati edo bertzeari erreferentzia egiteko modu bat edo bertze erabiltzen dela ikus dezakegu. Euskaraz adibidez ez da bereizketa hori egiten, hau da, ez dago generorik. Honek inklusibitateari mesede handia egiten dio, eta ikasleek beraz euskaraz ikastea ez dute hizkuntzaren aldetik genero bereizketarik jasaten.

Gainera, ezagunak diren mantalak erabili ohi dira Haur Hezkuntzan, eta orokorrean urteetan zehar neskak kolore arroxeko eta mutilek kolore urdineko mantalak erabili ohi izan dituzte. Egia da azken urteetan hau aldatuz doala, gutxinaka bada ere, eta gero eta orokorragoa dela mantaletan kolore neutroak ikustea. Baina, ikastetxeek jartzen ahal dute arreta hontan? Ba al dago nolabaiteko gomendiorik genero bereizketa bultzatzen duten kolore hauek ez erabiltzeko gomendatzen duen planik?

Gainera, ezaguna da ere jolasetan ematen diren bereizketak. Aipatzekoa da Haur Hezkuntzan patioetan orokorrean ez dagoela futboleko edo soka saltoan jolasteko ohiturarik, baina jolas hauetan ere bereizketa nagusiak ematen dira, eta bereizketa hauek ekitideko planak badaude zenbait ikastetxetan, baina ez guztietan.

Ikasgelan genero estereotipo hauek umeei zein puntutaraino barneratuak dituzten aztertzeko eta ematen badira, ideia hauek lantzeko planteatua dago lan hau. Praktikaldiak burutu ditudan ikastetxea eredutzat hartuz ikasleen eguneroko materialak behatzeaz gain,

gaia lantzeko proposamen didaktiko bat egin dut, baina hau sortzeko, ezinbertzekoa da argi izatea orain arte aipatutako ideia guztiak.

Baina, zer egiten da eta zer egin daiteke ikastetxeetan aipatutako ideia guzti hauek lantzeko?

2.5. Hezkidetza plana

Hezkidetza zer den ikusi aurretik, hezkuntzan urteetan zehar gizarteak, eta bereziki emakumeek ikasteko izandako fase ezberdinak ezagutzea ezinbertzekoa da. Hezkuntzan generoen artean eman diren bereizketak oso nabariak izan dira, eta kaltetuak beti emakumezkoak izan dira:

- 1857.urtean Moyano Legeari esker, emakumeei hezkuntza eskubidea aitortu zitzairen lehen aldiz, ordura arte ikasteko aukerarik ez baitzuten izan. Hezkuntza eskubide hau 6-9 urte bitartean izan zen, eta curriculuma “josi eta errezatu” kontzeptuetan oinarritzen zen, hau baitzen emakumezkoek ikasten zutena. 1872 eta 1881 urteen bitartean 10 emakume egon ziren unibertsitatean, *Elena Maseras* lehenengo matrikulatua izan zelarik, baina bakar batek ere ez zuen lanbidean jarduteko aukerarik izan.
- 1909. urtean 12 urte bitartera handitu zuten derrigorrezko eskolaratzea, eta 14 urte berandago, 1923.urtean, 14 urtera arte luzatu zuten. Tartean, 1911.urtean lehen eskola mistoak eraiki ziren, baina ez zuten indar handirik izan, gizartean aurkakotasun handiak baitzituzten.
- 1931. urtean aurrerapausu nabariak ikusi ziren hezkuntzan, 2. Hezkuntzan hezkuntza laiko eta doakoa eraiki baitzen, eta institutuak mistoak ziren. Hau ez zen Lehen Hezkuntzara zabaldu eta urte gutxi iraun zuen honek, Frankismoaren agerpenarekin aurrerapausu hauek desagertu baitziren.
- 1939. urtean hezkuntza Eliza katolikoaren esku geratu zen, eta hezkuntza segregatua eta curriculum ezberdinerantz itzuli zen. Emakumeak etxera eta zaintza lanetara itzuli behar izan ziren, eta gizonezkoak berriz goi mailako ikasketetara eta lan merkatura bideratu zituen hezkuntza honek.

Gaur egun eskola inklusiboa sustatzen duen hezkuntza dago boterean eta honek guztiontzat den kalitatezko eskola bat bultzatzen du, bazterketarik egiten gabe. Eskola bateko ikasle guztiak beharrezkoak dira, irakaskuntza prozesua aberasten baitute ikasle bakoitzaren

desberdintasun horiek. Hau lortzearen bidean hezkidetzeta plana sortu zen, baina zer da eskola hezkidetzaillea? Zer lortu nahi da zehazki honen bidez?

Hezkidetzeta, bi sexuak ikasgela berean eta curriculum bera jarraitzea baino askoz gehiago da. J.Taberner-en arabera hezkidetzeta tratu eta orientabide intelektual, moral eta profesionalen genero-diskriminazio negatiboak sahistuz hezte da (Castilla, 2008).

Eskolak bide honetan parte hartzen du, eta eskola hezitzaile baten lehenengo helburua genero desberdintasunak guztiz desagertzea da, berdintasunean oinarritutako sozializazio bat eraikiz (Subirats, 1994). Identitate aniztasuna errespetatzea ezinbertzekoa da ere, nesken eta mutilen garapen pertsonala ahalbidetuko baita honekin. Curriculumeko edukietan, emakumeen ekarpenak ez dira ikusten eta sexismoa eta genero indarkeria gazteen bizitzen garapenean eragiten ari diren errealitateak dira.

Horregatik, ezinbertzekoa da hezitzaileak izango garen horiek honekiko kontzientzia hartzea, eta ideia hauekiko hausnarketa bat egitea. Hala nola, genero identitatea nola eraikitzen den aztertuz, ezagutuz eta honen inguruan hausnartuz, edota estereotipoak eta genero aginteak identifikatuz eta hauek bukatzeko bidea eraikitzen hasiz. Irakasleok egiten dugun guztia hezigarria dela kontuan hartu behar dugu, ikasleek esaten dugunaz, egiten dugunaz ikasten dute, eta hau kontuan izanda aipatutakoaren inguruan hausnartzea eta hau aldatzearen alde lanean hastea ezinbertzekoa da.

Hezkidetzeta plana, hizkuntza politika eta kultura sailak derrigorrezko hezkuntzan sustatuko plana da. Plan honen helburua eskola eredua aldatzea da, eskola mistotik, hezkidetzan oinarritutako eskolara salto eginez. Agerikoa da sexismoan oinarritutako gizartearen bizi garea, eta eskola horri aurre egiteko baliabidea izan daiteke. Baina horretarako, gainerako erakundeen laguntza formala beharrezkoa da, eskolak planteamendu bat izatea ez baita nahikoa, guztiak elkarlanean aritzea beharrezkoa da. Beraz, aipatutako ikuspegi honek ikastetxeko kultura, politika eta praktikak aintzat hartu eta gaitasun guztien ikaskuntzan integratu behar ditu. Gainera eskola-sistema eratzen duten egitura eta pertsona guztiengan eragitea garrantzitsua da.

Berdintasuna bermatzen eta sexu/genero estereotipo hauek deuseztatzen saiatzen diren legeak eta plan instituzionalak aurrera eraman diren arren, eta emakumeak gizarteko esparru guztietan mugitzen diren arren, gizartearen berdintasun-gaietan defizit garrantzitsua dago oraindik ere.

Eskola eremuan ere aurrerapen handiak eman dira (emakumeen parte-hartzea, eskola mixtoak eskola gehienetan eta abar), baina hala ere, ez da guztizko berdintasuna lortu eta eskolak horren alde lanean jarraitu behar du. Hau lortzeko plan bat sortu du hezkuntzak, aurretik aipatutako hezkidetza plana. Plan honen helburu nagusia emakume eta gizonen arteko desberdintasun guztiekin bukatzea eta sexismoak eragindako indarkeria-mota guztiak deuseztatzea da.

Eskola guztiek helburu berdinari jarraitzen dioten harren, ikastetxe bakoitzak dituen behar eta ahalmenak kontuan hartuz sortzen du hezkidetza plana. Graduan zehar burututako hiru praktikaldiak ikastetxe berdinean egin ditut, eta memoria egiteko ikastetxeak dituen plan ezberdinak landu behar izan ditut. Ikastetxe honek ez du Hezkuntza Proiektua izeneko dokumentu bat erredaktaturik. Hala ere, honen barruan sartuko lirateken zenbait dokumentu solte dituzte. Anitzasun plana, hezkidetza plana eta bizikidetza plana dira ikastetxe honek martxan dituen plan nagusiak.

Lantzen ari garen gaiari lotuz, San Miguel ikastetxeak duen Hezkidetza Planean oinarrituko naiz. Plan honen helburu nagusiak hiru dira: hezkuntza-sistema hornitzea hezkidetzazko eskola-eredua era koordinatuan sustatzeko egitura eta pertsonen, eraldaketa prozesuak bultzatzea hezkidetzazko eskolarantz joateko, eta genero-indarkeria eta sexismoa sorburu duten indarkeria mota guztiak prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta horiei erantzun eraginkorra emateko mekanismoak abian jartzea.

Hau lortzeko, ikastetxeak teoriatik praktikara pasatzeko pausuak zein diren zehaztu ditu. Hasteko, errealitatearen analisia egin behar da, maila desberdinetako beharrak zehaztu ahal izateko. Gero, ikasmateriala aztertu behar da (adibidez, filmak aztertzeko Bechdel testa erabiltzen dute). Eta, ikasmaterial guztia aztertu ondoren, erabakiak hartu behar dira. Horrela, hezkidetzaillea den materiala erabiltzen jarraituko dute, eta hezkidetzaillea ez den materialarekin hainbat aukera planteatu dituzte. Hasteko, baliabide hauek ez badira ezinbertzekoak, bertze batzuegatik (material hezkidetzailleak) ordezkatzeko dituzte, edo material berriak sortuko dituzte. Aldiz, baliabide hauek ezinbertzekoak badira, bi aukera sortzen dira. Lehenengoa, materiala aldatzea edo osatzea, genero ikuspegia txertatuz. Bigarrena, materiala moldaezina bada, ikuspegi kritikoz aurkeztea, eta opresioak salatzea.

Materialez gain, egunerokoan hainbat gauzari erreparatzen diote. Adibidez, hizkera inklusiboaren erabilera bultzatzea, eskolan irudi hezkidetzailleak jasotzea, patioaren erabilera parekidea sustatzea, emakume idazleak ikusaraztea liburutegian, Malerrekako eta bertze lekuetako emakume erreferenteak ikusaraztea, eta abar. Hau lortzeko, bertzeak bertze,

ikastetxeko korridore eta eskaileretan hainbat horma-irudi jarri dituzte, esaldi eta irudi hezkidetzailleekin, hainbat emakume ikusaraziz eta datuak emanez.

Hezkidetzeta aurreratuagoa dago eskola publikoan familietan baino, eta hau horrela izatearen zergatia gaia lantzen delako da. Aurrerapausu handiak eman dira eskolan, baina oraindik lan handia dago egiteko bertintasunean eta sexismoan oinarritzen ez den hezkuntza bat lortzeko bidean. Hala nola, zaintza lanen garrantzia eta bilakaera irakastea; emakumezko erreferenteen aitortza egotea, zientzialari, politikari, eraldatzaileak eta abar; lenguaia inklusiboa garatzea (nahiz eta euskaraz ez dagoen horren arazorik); emozioen inguruko heziketa orekatua garatzea denontzat eta tankera honetako hamaika gauza daude oraindik ere lantzeko.

2.6. Artea eta ikus kultura: arrotzak izan daitezken gaiak lantzeko baliabide aparta

Aurretik ikusi dugun bezala oraindik ere eskoletan lan handia dago egiteko, eta berdintasuna lortzeko bidea luzea da. Horregatik, umeak txikiak direnetik ikasgeletan gaia lantzea garrantzitsua dela iruditzen zait. Agian gaia ulertzeko txikiegiak izan daitezkeela pentsa daiteke, baina umeen behar eta ahalmenetara irakatsi nahi den hori egokituz inongo arazorik gabe lortu daitekeela uste dut. Generoaren gaia arrotza izan daiteke umeekin lantzeko, baina hau haiekin lantzeko bideak bilatu behar dira, eta artea umeekin gaia lantzeko aukera polit bat izan daitekeela uste dut.

2.6.1. Artea eta hezkuntza

Artea museoetan dauden artelanetara murrizten da, eta bai, museoetan dauden artelanak artea dira. Museoetara bisita aisialdian zalentasun moduan egiten den ekintzatzat ezagutzen da orokorrean, baina artea aisialdiko momentu batean egiten den ateraldi bat baino askoz ere gehiago da. Artearen bidez ikaskuntza ugari eman daitezke.

Pasa den mendearen erdialdean Dewey (1934) artearen ikuskera tradizionala gainditzen saiatu zen eta artea ekintza esperientzial bat dela azaldu zuen artelanak honela definituz: “artelanak esperientzia baten islada dira, artista batek dituen egoera pertsonal eta kulturalak isladatzen ditu”.

Badira ere genero estereotipo eta eraikuntzaren inguruan zuzenean lan egiten duten artistak. Hala nola JeongMee Yoon argazkilari korrearrak genero estereotipoak kritikatzeko

helburuarekin iragarkiak erabiltzen ditu. Kontsumo-merkatua modu zentzugabe batean sortzen du, haurren argazkiak erabiliz. The Pink & Blue Project proiektuaren bidez, umeen argazkiak erabiltzen ditu, genero estereotipo hauekin bukatzeko asmoz iragarki alternatiboak sortuta. Yoonek bere praktika artistikoan azaltzen duen moduan “explora las preferencias culturales y las diferencias en los gustos de los niños (y sus padres) de diversas culturas, grupos étnicos, géneros e identidades” (Chavez, 2020, p.19).

Yoon-en argazkiek feminitatearen adierazpena nola manipulatzeko erakusten dute, eta ondorioz, neskek, modu inkontzientean, arrosa kolorez janztea erabakitzen dute, femeninoaren islada baita kolore hau, eta bertzalde, mutilak urdinez janztea erabakitzen dute.

Bere proiektuaren deskribapenean, Yoonek neskek bakarrik arropa arrosa eraman nahi izatea ezhoikoa ez den, eta gainera kultura ezberdineko umeetan zabaltzen ari dela aipatzen du. Yoonen arabera, agian iragarki komertzialen eragin nabari bat izan daiteke, eta ume zein gurasoek tankera horietako produktuak erostera animatzen dituztela aipatzen du. (Chavez, 2020).

Ez du soilik neska zein mutilen materialetan azaltzen den kolorea kritikatzeko, baizik eta haien jostailuak ere ildo bera jorratzen dutela azaltzen du. Hala nola nesken jolasak makilajea, arropa, sukaldea eta garbiketari loturik dauden jolasak izanik, eta mutilen jolasak robotikarekin, dinosaurioekin, zientziarekin eta tankera horretako jolasekin lotuak dauden bitartean.

3. irudia: *The Pink & Blue Project, nesken irudia*



The Pink & Blue Project, nesken irudia, JeongMee Yoon, 2005, Artworks,

http://www.jeongmeeyoon.com/aw_pinkblue.htm

4. irudia: *The Pink & Blue Project, mutilen irudia*



The Pink & Blue Project, mutilen irudia, JeongMee Yoon, 2005, Artworks,

http://www.jeongmeeyoon.com/aw_pinkblue.htm

Baina artearen historiako artelanak, garaiko sinesmen, baliabide edota ideiak isladatzen dituzte, eta hauek ere erabilgarriak izan daitezke hausnarketarako. Hala nola pasa den urtean *Arteen Baliabideak Hezkuntzarako* ikasgaian sorutako proposamen batean Nafarroako Museoan dauden zenbait artelan erabili genituen heriotzaren gaia umeekin lantzeko. Artelan horien artean, Historiaurreko aretoan dauden Idolotxoak, Erromatar aroko aretoan dagoen *Porcioux Felix Estela*, Carcastilloko hilarria edota Javier Ciga-ren (1877-1960) *Un Viático en el Baztán* artelanak erabili ziren umeek heriotza ikuspuntu ezberdinetatik ezagutzeko helburuarekin. Artearen baliabide hauek komenigarriak izan daitezke umeen hausnarketa bultzatzeko.

Erran bezala, hezkuntza garrantzi handia duen sektoreetako bat da, balioak, trebetasunak eta gaitasunak sortzeko aukerak ematen baititu, autoadierazpenerako eta komunikaziorako, kultura-aniztasuneko eta-desberdintasuneko testuinguruetan bizikidetzamodu berriak sustatzeko aukera izanik. Horregatik, eskolan guzti hau lantzeko baliabide gisa eta berdintasunean hezten den gizarte bat landu behar dugu.

Hau lantzeko arte hezkuntza bide bat izan daiteke, ikasleak hausnarketara bultzatzen dituen baliabidea izanik. Gero eta ohikoagoa da arterik gabe munduaren ulermena eta eraikuntza zabaltzea zaila dela pentsatzea eta esperientzia eta praktika eraldatzaile gisa onartuta, pertsonak beren ingurune indibiduala, soziala eta komunitarioa aldatzeko aukera ematen duela onesten da. Aurrerapenak eman diren arren, arte-hezkuntza oraindik hezkuntza-sistematik nahiko kanporatua jarraitzen du, eta arte plastikoa lantzeko erabiltzen da soilik artea.

Arte Hezkuntza aniztasuna lantzeko aukera emango duen arloetako bat da, arlo kulturala, praktikoagoa eta aberasgarriagoa izanda. Filmak, marrazki bizidunak edota irudiak adibide asko eskaintzen dituzten materialak dira, eta hauen bidez zenbait gai landu daitezke. Gainera, umeen egunerokoan inguratzen dituzten ikusizko kulturaren irudiak erabiltzea komenigarria da, haien egunerokoan hurbilekoak diren materialak erabiltzea lagungarria izango zaielarik. Publizitate iragarkiak edota bideoklipak ere baliabide aberasgarriak izan daitezke gaiak landu ahal izateko.

Huerta-k desberdintasuna ahalbidetzen ez duten inguruneak sortzera gonbidatzen gaitu, Hezkuntza artistikoa gizartearen aldaketa lortzeko motorea izanik: “usemos las artes para desarrollar aspectos esenciales como la defensa de los derechos humanos y el respeto a la diversidad” (Castillo-Mayén et al. 2014). Honetarako irudiak erabiltzea proposatzen du, hauek sexu/genero estereotipoekin hautsi eta errespetuzko jarrera eta baloreak sortzeko asmoarekin.

2.6.2. Ikus kultura: ikaskuntzak eskuratzeko baliabidea

Ikus kulturari buruz hitz egiten hasteko, ezinbertzekoa da Hernandezek (1996) dioen moduan, arteak gure egunerokoan eta bereziki hezkuntzari izan duen lotura aztertzea. Gure bizitzan zehar Arte Hezkuntzaren inguruan izandako esperientziara jotzen badugu, seguruenik, marrazketa eta zenbait pintura prozedurekin egingo dugu topo, tankera hauetako gauzak baitira eskoletan irakasten direnak. Arte hezkuntza, hausnartzeko eta errealitatea interpretatzeko ezagutzat hartu beharrean, izaera praktikoa eta manual honekin lotzen duen ikaskuntzak garatzeko erabili izan da.

Errealitate bat da gure egunerokoan jasotzen ditugun irudiak hamaika direla, eta gainkarga honen inguruan gogoeta egitea beharrezkoa da. Gaur egun haurtzarotik hasten gara irudiak pertzibitzen, eta irudi hauek dituzten mezuak ulertzen ikastea ezinbertzekoa da, muinean irudi horrek azaldu nahi digun horren inguruko gogoeta eginez, ez soilik azalean geldituz.

Egungo Curriculum diseinuan ez ezik, Arte Ederretako fakultate gehienetan ere nagusi den jarrera horren aurrean, laurogeiko hamarkadaren hasieran, Brunerrek esanahira itzultzeko asmoz, pentsamendua definitzen duen korrante bat azaleratzen hasi zen, hizkuntzaren arauak erabili beharrean diskurtsoaren interpretazioan oinarritu zen, testuingurua ardatz hartuta, interpretazioak eginez. Gaur egun beraz, artearen eremuak bere mugen desegitea du helburu, eta ondorioz

adierazpenak eta objektu artistikoak ulergarriak izateko erakusten da, hauen erranahietan oinarrituz (Hernandez, 1996).

Parsonen arabera egoera hau kontuan hartuta, Hezkuntza Artistikoko proposamenen eduki nagusi gisa aldarrikatu da interpretazioa (Hernandez 1996). Interpretazio hori ez da soilik ahozkoa edo bisuala, interakzio prozesu batean elkartu egiten ditu. Baina objektuetatik haratago doa, bakoitzaren pertsona edo biografia objektu artistikoekin edo kultura tresnekin erlazionatzea suposatzen du. Norberak eta taldeak egiten dituen kultura ekoizpenen eta ulermenaren arteko loturak ezartzen ikastea da beraz ikus kulturaren bidez lortu nahi dena.

Parsonek dioenez, prozesu honen bitartekaria hizkuntza da, eta helburua ikusizko eta hitzezko bitartekoei buruz ulermen-esparruak ezartzea da. Arte Hezkuntzari lotutako ikuspegi honen helburua beraz, ikusizko kultura ulertzen laguntzea da, hau osatzen duten objektuen aurrean interpretazio-estrategiak ikasiz. Ikuspegi honen ondorioz, irakasleek (ulermena ikertzen dutenak izanda) eta ikasleek artelan jakin batzuk zein erranahi artistikoak dituzten adierazpenak ulertzeko duten moduari erreparatzen diote. Ulermen hauek zenbait gaien ingurukoak izan daitezke, norberaren ekoizpenen inguruan, ikusizko kulturari dagozkien objektuak ulertzeko, eta abar.

2.6.3. Ikus kultura eta eskoletako curriculum ezkutua

Curriculum ezkutuaren gaia gogora ekarrita, curriculum ezkutu bisuala ere existitzen dela aipatu beharra dago. Baina zer da curriculum ezkutu bisuala? Hezkuntza-testuinguru batean modu inplizituan transmititzen diren edukien multzoa da, ikusizko hezkuntzaren bitartez ematen dena (Acaso et al, 2005).

Ikusizko hizkuntza ikus-komunikazioaren kode gisa ulertzen badugu, haren diskurtsoa tresna batzuen manipulazioaren bidez ematen da, hala nola tamaina, kolorea, argitasuna eta abar. Eskola batean curriculum ezkutu bisuala hainbat alorren bidez transmititu daiteke, adibidez pasabideetan jartzen den apainketekin, banaketa hierarkikoaren bidez eta abar, baina aukeratutako gaiaren transmisioari dagokionez, irakasleek erabiltzen duten ikusiko dokumentazio bisualaren bidez igortzen dela erran dezakegu (Acaso et al, 2005).

Acaso eta Neureren (2005) ideietan irakasleak bere diskurtsoa egiteko aukeratzen dituen irudiak ezkutuko curriculum bisual gisa funtzionatzen ari dira, eta ikasleek irudi hauetatik ikasten dute, hauek transmititzen dizkieten ideiak barneratuz. Irakasleak ongi aukeratu behar du zein irudi jarriko dituen diapositiban, edota zein bideo, film edota abesti

jarriko dizkien ikasleei. Hauek isladatzen dizuten ideiak aurretik aztertzea beraz ezinbertzeko lana izanen da.

Aurretik aipatu bezala, artea arrotzak izan daitezkeen gaiak lantzeko baliabide ona da, eta honen adibide dugu “El curriculum oculto visual: aprender a obedecer a traves de la imagen” lanean (Acaso et al, 2005). Bertan eskola batean oinarrituta, ikusizko kulturaren bidez eta curriculum ezkutu bisualaren barne dauden zenbait ideia aztertu zituzten. Horien artean, irakasleek haien ikasleei konposizioari buruzko ikasgai baterako Rubensen “Rapto de las Sabinas” (Rubens, 1639) artelana aukeratu zuen eta honen bidez zenbait kontzeptu azaldu zien ikasleei. Irakasleak artelan hau erabiliz, Rubensek ikusizko tentsioa transmititzeko artelan hau egin duela azaltzen die, eta emakumeen aurkako indarkerizko ekintza baten irudikapen bisuala ikusten dute ikasleek.

Bertzalde, ikasleei “Las chicas guerrilleras” (New York, 1985) lana azaltzea aukeratuko baluke, curriculum izkutu bisualaren mezua guztiz aldatuko litzateke, artelan gehienen biluziak emakumeenak direlako, eta gainera, emakume artistak ehuneko osoaren oso portzentail txikia delako. Artelana irakasteaz gain, ideia hauek transmititzeko aukera izango luke ikasleak, eta ikasleek aipatutakoaren inguruan hausnartzeko aukera izango zuten.

3. ATAL PRAKTIKOA

3.1. BEHAKETA

Generoak eta genero esteotipoek hezkuntzan eragina duten ikusi ahal izateko, hirugarren praktikaldian nagoela aprobeztatuz gelan zenbait material behatu ditut. Horretarako noski, lehenik eta behin bi tutoreei baimena eskatu diet, eta hauek baietza emantean hasi dut behaketa, nahiz eta aipatzekoa den behatu ditudan detaile hauek praktikaldian hasi nintzen momentuan egin nuela, kontu hauetan fijatzen bainaiz normalean.

Baina behaketaren detaileak aipatu aurretik, gelako testuingurua zein den aipatzea gustatuko litzaidake. Nire kasuan bigarren zein hirugarren praktikaldiak egiteko Doneztebe herrian dagoen San Miguel ikastetxea aukeratu nuen. Ikastetxea ezaguna dut, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasketak bertan burutu nituelako, eta lehenengo praktikaldiak ere bertan egin nituelako. Eskola hau Malerreka bailaran dago, eta bailarako bertze herri batzuetan ere eskola gehiago dauden arren, hezkuntza eskaintza handiena Doneztebeko San Miguel ikastetxeak du.

Doneztebe Malerreka bailaran dago eta demografia aldetik handiena dela erran dezakegu. Bertako eskolara inguruko herritako ikasleak joaten dira. Gela honetan zehazki Elgorriaga, Donamaria, Behitza-Labaien edota Ezkurrako ikasleak daude. Ikasle kopuruari dagokionez 15 ikasle daude gela bakoitzeko.

Eskola honetan 306 ikasle matrikulatu dira 2021-2022 ikasturtean. Ikasle horietako 89 Haur Hezkuntzan daude eta 217 Lehen Hezkuntzan. Haur Hezkuntza hiru urtetan banatzen da, 3 urteko gela, 4 urteko gela eta 5 urteko gela. 3 urteko gelan 24 ikasle daude. Bi gela sortzeko minimora ez direnez iristen, gela bakarra dago, nahiz eta laguntzako irakasleak egon. 4 urtekoak, berriz, 2 gela daude, batean 18 eta bertzean 19 ikasle daudelarik. Bukatzeko, 5 urteko bi gela daude, 23 ikasle daude gela batean eta 20 bertzean. Azken hauetako batean eramanen dut aurrera nik aipatutako proposamen didaktikoa.

Gelako testuingurari dagokionez, erran bezala 3 urteko bi geletan egin dut behaketa, Haur Hezkuntzako 2.zikloko 1.urtean hain zuzen ere. Nire kasuan, praktikak Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehenengo urtean burutzen ari ditut. Bigarren zein hirugarren praktikaldia gela berdinean egin ditut, eta hiru urteko bi geletan egotea egokitu zait. Beraz orduak bi geletan egoteko egokitu ditut, eta eguneko ordu batzuk gela batean ematen ditut, eta bertze batzuk bertze gelan. Gela bakoitzean 15 ikasle daude eta gela bakoitzak tutore bat du, eta ni tutoreekin elkarlanean aritzen naiz, behar dutenean lagunduz. Gainera, zenbaitetan laguntzako irakasleak sartzen dira, eta gelan bi irakasle egoten dira.

Erran bezala, gela bakoitzean 15 ikasle daude, eta berezia dirudien arren, gela bakoitzean 8 neska eta 7 mutil daude. Kopuru honek bi gelatan kointziditzen du, eta ikasle kopuru berdina egoteaz gain, neska eta mutil kopuru berdina dago bi geletan.

Gela honetan lan hau osatzeko umeein ez dut inolako interakziorik izan, behaketan oinarritu naiz eta. Behaketa hau egiteko umeei eskolara ekartzen dituzten materialak behatu ditut. Egia da gelara ekartzen dituzten materialak ez direla asko, jantzita daramaten arropaz gain motxilak eta mantalak ekartzen baitituzte soilik. Aipatutako materialen behaketan oinarritu naizen arren, ikasleek gelan haien artean jolastean dituzten jarrerak aztertu ditut ere, interesgarria izan daitekeelako txikitatik zer nolako jarrerak dituzten ikustea.

Behaketa hau tauletan apuntatzeak ideiak aurretik argi izatea edota iada ikusiak izatea lagungarria izan zait, baina materialen erregistroa egiteko saio bat gela bakoitzeko erabili ditut. Jarrera zein jolasei egindako behaketari dagokionez, momentuaren arabera egin ditut, aipatu bezala egoera horiek espontaneoki sortzen baitira, eta horrelakorik ematen dela

ikusiz gero oharretan apuntatzen joan naizdela uste dut. Egia da azken hauen behaketa jolas librean daudenean egin ditudala, orduan baita espontaneoki tankera honetako gauzak ateratzen direnean, nahiz eta egia den ariketa bideraturen batean gertatzen dela horrelakorik ematea eta hauek ere oharretan idatzi ditut.

Aukeratutako gaiari berriro ere helduta, txikitatik zenbait genero estereotipo barneratzen ditugu, eta hauek modu zuzen batean edota zeharka ematen den modu batean izan daitezke. Hau da, barneratzen ditugun ideia hauek etxean irakatsi digutenaren arabera izan daiteke, edota egunerokoan jasotzen ditugun mezuengatik barneratu ditzazkegu. Hori dela eta, genero estereotipoen ideia hauek adin honetan isladatuak ikusten diren edo ez, eta isladatuak ikusten badira zein punturaino ematen diren behatzea izanen da hurrengo lana.

Hezkuntzako ziklo honetan erabiltzen den materiala, liburruei eta abar dagokionez, ez da oso anitza. Hori dela eta, ikasleen materialak behatzea erabaki dut. Egia da ere gelan dauden materialen aurrean ikasleek zer nolako jarrerak dituzten aztertzea erabaki dudala, jarrera hauek nolakoak diren ikustea garrantzitsua delako.

Alor asko behatzen ahal dira, baina adin tarte hauetan erabiltzen den materiala nahiko murrizta dela ikusita, gelako behaketa ikasleen materialetan zentratzea erabaki nuen. Motxila eta mantaletan oinarritu dut nire behaketa, nahiz eta zenbaitetan arropa edota jokatzeko modu ezberdinak behatu ditudan. Gainera, gelan ikasleek zein jolasetan aritzen diren aztertu dut, baita jolas hauetan ari direnena zer nolako jarrerak dituzten. Behaketa hauek ez dira modu antolatuta batean egin, umeak jolas librean dauden bitartean ematen diren egoera espontaneoak behatu baitira.

Behaketan oinarrituz, motxilen behaketa azaltzen hastea gustatuko litzaidake. Behaketa hau eginda, erregistro fitxa batzuetan sartu dut informazio guztia, gero garatu ahal izateko, eta honakoa izan da sortutako erregistro fitxa:

4. taula

Lehenengo gela. Mantal kolore kopurua.

NESKAK		MUTILAK	
Urdina	2	Urdina	3
Berdea	1	Berdea	1
Gorria	1	Gorria	2
Arroxa	4	Txuria	1

5. Irudia: *lehenengo gelako nesken mantalaren adibidea.*



6. Irudia: *lehenengo gelako mutilen mantalaren adibidea.*



5. taula

Lehenengo gela. Motxilen kolore kopurua.

KOLOREA	IRUDIAK	KOPURUA	
		Neskak	Mutilak
Arroxa	Bai	3	0
	Ez	2	0
Berdea	Bai	1	1
	Ez	0	0
Urdina	Bai	1	2
	Ez	0	0
Grisa	Bai	0	1
	Ez	0	0

7. Irudia: *lehenengo gelako nesken motxilak*



8. Irudia: *lehenengo gelako mutilen motxilak*



6. taula

Bigarren gela. Mantal kolore kopurua.

NESKAK		MUTILAK	
Urdina	2	Urdina	3
Berdea	0	Berdea	1
Gorria	0	Gorria	1
Arroxa	4	Txuria	1
Morea	2	Marroia	1

9. irudia: bigarren gelako nesken mantalak



10. irudia: bigarren gelako mutilen mantalak



7. taula

Bigarren gela. Motxilen kolore kopurua.

KOLOREA	IRUDIAK	KOPURUA	
		Neskak	Mutilak
Arroxa	Bai	4	0
	Ez	0	0
Berdea	Bai	0	1
	Ez	0	0
Urdina	Bai	2	3
	Ez	0	0
Gorria	Bai	1	0
	Ez	0	0
Horia	Bai	0	1
	Ez	0	0
Beltza	Bai	0	0
	Ez	0	1

11. irudia: bigarren gelako nesken motxilak



12. irudia: bigarren gelako mutilen motxilak



Jolasean ari ziren bitartean bildutako oharren erregistro fitxak modu eskematiko batean egin ditut eta apunteak ez dira oso ongi ulertzen, hori dela eta ez sartzea erabaki dut, eta hartutako ohar horiek edo egindako behaketa, aurrerago, modu garatu batean azaldu dut.

Bi geletan motxilen afera ezberdina dela erran daiteke, nesken motxiletan batez ere. Gela batean neska gehienek motxilaren kolorea arroxak da, 5 neskek baitute kolore horretakoa, neska pare batek kolore berdeko motxila eta spiderman-en motxila dutelarik. Mutilek berriz kolore honetako materialik ez dituzte, eta motxila gehienak urdinak edo grixak dira, eta marrazkiei dagokionez super heroien marrazkiak edota mounstroak nagusitzen dira.

Bertze gelan berriz nesken motxila gehienak "Minnie"-ren irudiak dituzte eta irudi hau ez duten bertzeak arroxak kolorea dute. Neska bakarrak du "Spiderman"-en motxila, eta kolore urdinekoa da. Mutilen motxilei dagokionez, urdina, berdea, horia eta beltza dira nagusitzen diren koloreak, eta honetan ere super heroien irudiekin edota irudi gabeak dira guztiak. Orokorrean beraz, bi geletan nesken motxilak arroxak direla ikusi dezakegu, eta irudei dagokionez "Minnie"-ren irudia da gehien errepikatzen dena. Mutilei dagokionez, arroxak ez da inondik ere ikusten haien motxiletan, eta irudietan ere ez dira horrelako marrazki bizidunak ikusten, dinosaurioak edo super heroiak agertzen baitira.

Mantalei erreparatu diet ere, eta ezberdintasuna nabaria dela ikusi daiteke. Neska gehienek mantal morea edo arroxak dute bi geletan, baina mutilen mantalek kolore berde, marroi, urdinak edota gorriak dituzte, baina inork ere ez du kolore arroxeko mantalik.

Bertze gelan ere arrosa koloreko mantalak badaude, baina aipatzekoa da zenbait neskek kolore berdeko edota urdineko mantalak dituztela. Baina mutilei dagokionez, gela honetan ere ez dago mantal arrosa duten mutilik. Orokorrean beraz kolore arroxak nesketan ikusten dugu berriz, eta mutiletan kolore hau ez den bertze batzuk ikusten dira.

Aurretik aipatu bezala haien materiala behatzeaz gain, arropa tarteka ere behatu izan dut, eta egia da koloreetan dela berezitasun gehien nabaritzen dena. Hau da, neska askok maiz kolore arroseko arropak ekartzen dituzte, baina mutilek kolore arroseko arropa ekartzea ez da oso ohikoa. Egia da behin baino gehiagotan kolore morea duten arropak ekarri izan dituztela mutil pare batek, baina zerbait puntuala izan dela erran daiteke. Orokorrean berriz arrosa kolorea nesken kolorea denaren topikoa isaladatzen dela ikusi dezakegu, eta hau txikitatik ditugun estimuluetatik barneratzen ditugu.

Azken ideia hau aipatzearen zergatia behatutako jarrerei lotuta dago. Gelan ume guztiak txokoetan jolas librean aritzen direnean behatzen egon izan naiz askotan, eta bertan errandako ideia topiko hauek isladatzen ez direla ikusi daiteke. Guztiak txoko guztietan aritzen dira jolasean, beti ere haien gustuei jarraituz noski, eta jolas librean ere guztiak rol guztiak hartzen dituzte, inolako aurreiritzirik antzeman gabe. Egia da noizbehinka ikasleren batek aurreiritzi horiek isladatzen diren esaldiren bat egin duela, hala nola:

- “Berak ezin du gona eraman, neska ez delako”.
- “Hori ez da beria, arroxka delako eta bera mutila delako”.
- “Zu ezin zara amatxo izan mutikoa zarelako”.

Esaldi hauek ez dira askotan errepikatzen, eta errepikatzen direnean etxean edo kalean barneratutako ideietatik atera dituztela ikusi daiteke, gero egunerokoan jokatzeko duten moduan ez baitira isladatzen. Honi lotuta ere, emakumearen eguna zela eta ikasleei handitan zer izan nahi duten galdetu zaie, haien aurreiritzi horiek zein puntutaraino barneratuak dituzten ikusi ahal izateko.

Umeen erantzunak ez dira inondik ere estereotipo hauekin lotzen, haiek gustuko dutena aipatzen dute eta. Egia da askok ondokoak errandakoa errepikatu dutela, haiek gustuko dutena errateko sormenik ez baitute oraindik. Baina orokorrean erantzunak oso antzekoak izan dira bai neska baita mutiletan ere. Hauek izan dira ikasleek aipatutako lanbideetako batzuk:

- Suhiltzailea
- Futbolaria
- Abeltzaina eta nekazaria
- Basozaina
- Garbiltzailea
- Matematikaria

Gainera, aurretik aipatu dudan moduan, eskolak skolae izeneko plan bat martxan jarria du, eta hau lantzeko, noizean behin irakasleek marrazki batzuk ematen dizkiete ikasleei eta haiek marrazkiak margotu behar dituzte. Ni praktikaldi hauetan nintzen bitartean bi super heroien irudiak agertzen diren marrazkia margotzea tokatu zaie. Orokorrean guztiek kolore anitzak erabili dituzte marrazkiak margotzeko. Baina gela bakoitzean deigarria egin zaidan kasu bana eman da, eta kasu hauetan neska arroxak kolorez margotu dute, eta mutila berriz urdinez.

Irakaslearekin hizketan, ikasle hauek marrazki hauek modu inkosziente batean margotu izan dituztela suposatudugu, haiei kolore horiek erabili izanaren zergatia galdetu diegunean, "kolore horiek gustukoak ditudalako" erantzun baitidate. Emakume eta gizonen irudi hauek kolore horiekin margotu izanaren zergatia barneratua duten kontzeptu bat izan daitekela pentsatu dut ere, egunerokoan jasotzen dituzten irudi eta informazioari esker barneratutako kontzeptu bat izanik. Ideia hau horrela den baieztatzeko, aurrerago egingo dudan proposamen didaktikoa planteatu dut, ikasleek kontzeptu hauek barneratuak dituzten ikusteko.

13. irudia: ikasleek margotutako marrazkien eredu bat



Ideia hauek egunerokoan duten informazioarengatik edota jaiotzen diren momentutik barneratzen dela ikusi izan dut behaketa honetan. Hori dela eta, gai hau txikitatik lantzea ezinbertzekoa dela iruditzen zait, estereotipo hauekin bukatu ahal izateko eta berdintasunean hezi ahal izateko. Eta nola landu daiteke gai hau ume hain txikiekin?

Zenbait irakasleek gai hau lantzeko proposamen ezberdinak egin izan dituzte, eta hauekin generoa eta genero estereotipoen gaia landu dituzte, modu honetan ideia hauek kanpo uzteko, eta berdintasuna isladatzen duten ideiak ikusi, ikasi eta barneratu ahal izateko.

4.2. EMAITZAK ETA BERE EZTABAIDA

Nire lana proposamen didaktikoa batean oinarritzen da, eta egindako prozesu guztia proposamen hori sortzeko beharrezko informazioa eskuratzeko egin dut. Informazio honen bilketa egiten hasteko behaketa bat egin dut, eta behaketa honetatik zenbait emaitza atera ahal izan ditut, eta hauek izan ziren proposamena modu honetan egitera bideratu didatena. Baina honen azalpena ondorioen atalean azalduko dut sakonago. Atal honetan beraz, behaketa hau egin ondoren ateratako emaitza hauek zer nolako eztabaida izatera bultzatu nauten azalduko dut.

A) Haurren materialak eta genero estereotipoak

Behaketa honetan umeez egunerokoan eskolara ekartzen dituzten materialak behatu ditut, eta aurretik nituen zenbait ideia baieztatzeko baliagarria izan zait. Gainera, alor teorikoan aipatutako atalen batean oinarrituz emaitza hauen eztabaida defendatzen dut. Umeen materialak behatzeak gizartean barneratuak dauden sexu/genero estereotipoek isladatzen dutena konfirmatu ahal izan dut.

Lehenik eta behin, Dovidio, Evans eta Tyler-en hitzak gogora ekarrita, gizartean barneratuak dauden estereotipo hauek eragina dute informazioa sortzerako orduan, kasu honetan gurasoek dituzten ideia horiek haien seme-alaben materialen hautaketan eragina dutelako, haien materialetako koloreak zein irudiak kolore arroxak edota printzesen irudiak izateak, edota jantzita daramaten arropak orokorrean gonak eta soinekoak izateak, nesken ezaugarriak izatearen ideiak isladatzen dituzte, zeharka bada ere, hauen aukeraketan familiek eragina izan dutelako. (Castillo-Mayén et al, 2014).

Eta hau isladatua ikusten da, behatutako motxila, mantal eta arropetan, ezberdintasun handiak ematen baitira bi generoen arteko materialetan. Ikusi ahal izan den moduan, mutil bakar batek ere ez du kolore arroxeko materialik, ezta printzesak azaltzen diren irudirik haien materialetan, eta gona eta soinekoan ez dira inoiz ere joaten gelara. Ideia guzti hauek jendartean barneratuak dauden pentsamenduak dira eta kasu honetan gurasoek haien semen/alabei transmititzen dizkiete, modu zuzen batean ez bada ere, aukeraketa hauek egiten dituztenean. (Lemus et al, 2008).

B) Haurren jolas librea eta genero estereotipoak

Bertzalde, ikus kulturak umeengan zer nolako garrantzia duen ikusteko aukera izan dut. Umeen jolasak hainbat faktoreek eragindako islada dira, hala nola familiek transmititzen dizkieten ideiak, elkartzen diren lagunen artean dituzten ideiak, baita egunerokoan jasotzen duten ikus kulturak ere. Haien egunerokoan jasotzen dituzte irudi horietan oinarritzen bagara, haien materialak eta jolasak ikusten dituzten marrazki edo iragarki hauetan oinarritzen direla ikus daiteke. Jasotzen dituzten irudi hauek estereotipoz beteak daude, eta mutilak kolore bat eta neskek bertze bat eraman behar dutela irakasten zaie umei. Gainera, aipatutako irudi hauetako mutilen jolasak dinosaurioekin zerikusia duten jolasak edota kotxeekin zerikusia duten jolasak dira, eta ideia hau da ikasleek barneratzen dutena irudi hauek ikustean. Bertzalde, nesken jolasa sukaldaritzarekin edota panpinekin zerikusia duten jolasetan aritu behar direla adierazten diete irudi hauek.

Baina aipatzekoa da hau gelako jolas librea behatu nuenean ez zela ematen, ikasle guztiak txoko guztietan aritzen direlako. Egia da ikasleren bati ez zaiola margotzea gustatzen, edota puzleetan ez dela gustora aritzen, baina hau ez da generoaren arabera banatzen, pertsonaren arabera ematen da. Egia da orokorrean neskek gusturago aritzen direla plastika txokoan, eta mutilak agian eraikuntza txokoan, baina jolas sinbolikoan aritzean etxe txokoan adibidez, guztiak elkarrekin aritzen dira eta ez dago generoen arteko inolako bereiztasunik.

C) Haurren patioko jolas librea eta genero estereotipoak

Behaketa 3 urteko ikasgelan egin dudana arren, egunero patiora ateratzen naizenez ikasleen jarrerak behatzeko aukera izaten dut. Hiru urtetan generoen arteko bereizketa hauek ematen ez direla aipatu dudana arren, 5 urteko umeen jolasetan zenbait bereizketa ematen direla ikusi dut.

Hiru urteko umeak elkarrekin aritzen dira jolasean, eta haien arteko jolasak parkean jolastea edota zuhaitzetako zomorroak begiratzen aritzea direlarik. 4 urteko umeen jolasak ere aurrekoekiko nahiko antzekoak dira ere, baina 5 urteko umeetan bereizketa nabariak ikusi ditut. Lehenik eta behin mutilak haien artean aritzen dira jolasean, eta neskek berriz bertze alde batetik jolasaten dute, eta ez dute elkartzeko joerarik.

Jolasei dagokionez, jolas sinbolikora jotzen dute, eta neskek gehiago aita, ama eta umearen papera hartu eta honekin zerikusia duten jolasak egiten dituzte, baita etxe zainketa eta lanekin zerikusia duten jolasetara aritzen dira. Mutilak ere jolas sinbolikoan aritzen dira, baina egia da gutxiogotan ikusi izan ditudala tankera honetako jolasekin.

Gainera jolas sinbolikoan aritzen badira garraio bideekin, konponketekin eta batez ere super heroiekin zerikusia duten jolasetara aritzen dira. Baina orokorrean haien arteko jolasak lasterka ibiltzea, arrapaketan eta borrokarekin zerikusia duten jolasetan aritzeko joera dute.

D) Behaketaren hausnarketa orokorra

Behaketa honen bidez beraz adinaren arabera generoen arteko bereizketak ematen direla ikusteko aukera izan dut. Umeak handitu ahala eta kontzientzia handiagoa duten heinean, generoen artean bereizketak ematen hasten direla ikusi dut. Hiru urteetan guztiak elkarrekin jolasten dute eta generoen arteko bereizketa nabarmenik ez dut ikusi, salbuespenak beti dauden arren, mutilen bat edo nesken bat zaharragoak diren umeekin jolastera jotzen zutelako, eta orduan generoen arteko bereizketa hau ematen zen nahigabearen.

Baina orokorrean bereizketa hauek ume zaharrenean artean ikusten da. Covid-aren protokolarekin, kurtso hasieran Haur Hezkuntzako ikasleak ezin ziren patioan elkartu, eta hiru, lau eta bost urtekoak korda batekin bereiztuak egoten ginen. Orduan ere bost urteko umeak, nahiz eta haiek bakarrik egon, neskak alde batetik eta mutilak bertzetik aritzen ziren jolasean.

Eta hau umeek dituzten eragin ezberdinengatik izan daitekeela uste dut. Eragin ezberdin hauek familiak, lagunak, eskolak eta abar izan daitezke, eta eragin hauetatik ideia ezberdinak jasotzen dituzte. Eragin guzti hauetaz gain, egunerokoan jasotzen dituzten ikus kulturak ere eragina izan dezakeela uste dut, etengabe irudiak jasotzen baitituzte ikasleak, eta hauek gustukoak dituztenek, erreferente moduan hartzen dituztelako. Umeek jasotzen dituzten ikus kultura hauek marrazki bizidunak eta iragarkiak dira batez ere, eta hauek transmititzen dituzten ideiak gutxinaka barneratzen dituztela ikusi dut, edo hori isladatzen dute ikasleek behintzat haien jolasen bidez.

Gainera, ikus kulturatik jasotzen dituzten ideiez gain, familia zein lagunengatik jasotzen dituzten ideiak ere anitzak dira, eta hauek haien eguneroko jarreretan ere eragin nabaria dute. Familiak orokorrean erabaki askoren arduradun dira, eta ideia batzuk edo bertze transmititzearen erabakia hartzen dute. Ikus kulturarekin zerikusia duten erreferentzia asko adibidez familiak izandako erabakiengatik da, hauek baitira horiek ikusten uzten dituztenak, eta erabaki honekin ideia horiek barneratzen laguntzen dituztenak. Aipatzekoa da, generoen arteko bereizketa defendatzen duten ideia horietako batzuk gizartean hain barneratuak daudenez, ez direla modu kosziente batean transmititzen, baina kontziente izan behar garelara, honek eragina izan dezakeela.

Honen kontzientzia hartu eta ideia hauekin bukatzeko eskola bide aproposa izan daitekela ohartzeko aukera izan dut, nahiz eta lan handia dagoen egiteko, irakasleek betaurreko moreak jantzi eta kontzientzia handia hartu behar dute gizartean hain barneratuak dauden ideiekin amaitzeko. Hala eta guztiz ere, generoen arteko bereizketa hauek ez emateko egunerokoan ikusten diren egoera ezberdinen aurrean eskuhartzea da eskolak egiteko duen lan handienetakoa. Gainera, ikasleekin gaia lantzea ere aproposa izan daiteke, ideia alternatiboak emanez, eta ordura harte dituzten ideiekin bukatzeko asmoz.

4.3. IRAKASLEEN PROPOSAMEN DIDAKTIKOAK

Behaketa honen bidez genero eta genero estereotipoak gelan lantzea ezinbertzekoa dela ikusi dut. Horregatik gai hau gelan lantzeko proposamen didaktiko bat proposatuko dut, non bertan adin goiztiarretik ideia horiek deuseztatu eta berdintasunean heitzeko ideiak barneratuko diren, eta batez ere errespetuzko gizarte batean bizi ahal izateko beharrezko ideiak barneratzeko zenbait ariketa proposatuko ditut.

Baina hau egin aurretik, iada gelan aurrera eraman diren proposamen pare bat aurkeztuko ditut, eta bertan ikusi daiteke gai hauek txikitatik landu daitezkeela, eta zer nolako ariketen bidez landu daitekeen.

Lehenengo hau unitate didaktiko bat da, eta umeekin generoa, genero estereotipoak eta rola ezagutu, aztertu eta honen inguruan hausnartzeko egindako proposamen bat da. Unitate honen izena "Emakumeak munduaren motorra da" eta helburu nagusia emakume eta gizonen egoera soziala modu kritikoan aztertzeaz gain, genero, sexu edo identitate ezberdineko pertsonenganako errespetua garatzea da.

4.3.1. 1GO PROPOSAMENA: EMAKUMEAK MUNDUAREN MOTORRA

Denboralizazioa, taldekatzea eta baliabideak

Proposamen hau aurrera eramateko bi asteko tartea behar izango da gutxi gorabehera, martxoaren 2tik 13ra egingen baita proposamena, emakumearen egun internazionala tartean dela eta, gai hau lantzeko data aproposa izan daitekela.

Aipatzekoa da data hau luzatu daitekeela, umeen interesa pizten bada eta gaiaren inguruan ideia gehiago sortzen badituzte gaia lantzeko denbora tarte gehiago emanda, edota

alderantziz ere gerta daiteke. Hau da, izan daiteke umeen interesa inondik inora ez piztea eta proposamenaren norabidea aldatu behar izatea, eta honek denboralizazioan eragina izatea.

Taldekatzeari dagokionez, ariketak talde osoan zein indibidualki egingen dira. Ariketaren bat ere 3-4 pertsonako taldeetan egingen da. Taldekatzea beraz, ariketaren arabera izanen da, ariketa horrek eskatzen duena edota aurrera eramateko erosoena izan daitekenaren arabera egingen dira taldeak.

Baliabide materialei erreparatuz gero proiektorea eta ordenagailua izanen dira ariketa pare batean erabiliko diren materialak, eta modu honetan irudimen bisualaren bidez landuko dira ariketa hauek. Gainera, murala egiteko materiala ere beharko dugu, hala nola paper edo kartulina handi bat, margoak zein errotulagailuak eta itsaskina.

Bertzalde, baliabide espazialei dagokionez gela erabiltzeaz gain, psikomotrizitate gela erabiliko da, bertan baitago proiektorea.

Justifikazioa

Aurretik aipatu bezala, ariketa hau aurrera eramanaren zergati nagusia gaur egun emakume eta gizonen egoera soziala ezagutzea eta modu kritiko batean aztertzen ikastea izan da. Modu honetan, genero, sexu edo identitate desberdineko pertsonenganako errespetua garatzeko. Proposamen honen bitartez beraz, generoa, sexua edo identitatea zer den ezagutzeaz gain, hauekiko errespetuzko jarrerak garatzea izanen da helburu nagusia.

Landuko diren edukiak

Proposamen honetan landuko diren edukiei dagokionez lau izanen dira. Guztiak estereotipo eta rolaekin lotuak daude, nahiz eta aipatzekoa den artea zein adierazpen artistikoak erabiliko direla zenbait atal lantzeko. Hauek dira beraz proposamenean landuko diren edukiak:

- Marrazki bizidun ezberdinek helarazitako mezuak identifikatu eta ikusi. (estereotipoak).
- Emakume zein gizonen rola zein diren ezagutu.
- Artisten eta zeintzialaren izenak eta haien obrak ezagutu.
- Adierazpen artistiko ezberdinak ezagutu.

Curriculuma

Curriculumari erreferentzia eginez, proposamenean zenbait helburu landuko dira, eta helburu hauek ebaluazio irizpide zehatz batzuei loturik egonen dira. Hauek dira landuko diren helburu nagusiak:

8. taula

Irakasleak proposatutako helburuak burutzeko gida.

HELBURUAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	ADIERAZLEAK
Behaketa aktiboa garatzea jarrera kritikoa garatzeko.	Emakumearen egoeraren inguruan hausnartzea egoeraz ohartaraziz.	Gaur egun emakume eta gizonen artean ematen diren egoera desberdinak identifikatzen ditu. Iragarki bat jarrita, hezkidetza falta identifikatzen du.
Rol eta estereotipoak ezagutu eta identifikatzea, haien bizitzan horiek ekiditeko.	Marrazki bizidunetan agertzen diren estereotipoen inguruan hausnartzea hauek identifikatuz.	Pelikula batean emakume eta gizonen egokitutako rolak desberdinak direla ohartzen da laguntzarekin. Marrazki bizidunen janzteko era estereotipatuaz ohartzen da laguntzarekin.
Emakume garrantzitsuak ezagutu eta identifikatu, hezkidetzan ikasteko.	Emakume esanguratsuen inguruko informazioa bilatzea interesa adieraziz.	Etxean gurasoekin emakume esanguratsuen informazioa bilatu.
Informazioa sailkatu eta antolatu, antolakuntzak duen garrantziaz jabetzeko.	Informazioarekin erregistro fitxak eta muralak egin ikasitakoa erakutsiz.	Bere pertsonaiaren inguruko erregistro fitxa egiteko interesa aurkezten du. Beharrezkoa duen materiala (argazkiak, testua) sailkatzeko gai da.

Jarduerak

Jarduerei dagokionez, bost jarduera ezberdin egingen dira, eta hauek denbora tarte ezberdinetan eramanen dira aurrera. Jarduera hauek ezberdinak dira haien artean eta hauen

bidez genero eta genero estereotipoak ezagutzeaz gain, generoa, sexu edo identitate ezberdineko pertsonenganako errespetuzko jarrerak izaten ikastea izanen dute helburu.

1. Marrazki bizidunak

Lehenengo ariketa honetan marrazki bizidun batzuk ikusiko ditugu, eta bertan emakumeek bizitzen dituzten egoera ezberdinak aztertuko ditugu. Behin marrazki bizidun hauek ikusita tankera honetako galderak eginen zaizkie ikasleei haiek hausnartu dezaten:

- Nola agertzen da emakumea? Zer nolako arropa darama? Zein da bere jarrera? Nola jokutzen du?
- Eta gizona, nola ikusten duzue gizona?

2. Egunerokoan emakume eta gizonen egoerak azertu

Ariketa honetan haien eguneroko bizitzak jaso dezaketen informazioa aztertuko dugu. Hau da, jostailu iragarkiak, telebistako iragarki ezberdinak edota etxean dauden joera ezberdinak aztertuko dira. Egindako azterketa hauen inguruan hausnartzea izanen da helburua, ikusitakoak zer pentsarazten digun amankomunean jarritz.

3. Asmatzaile, margolari, zientzialariak ezagutzen

Hirugarren ariketa honetan asmatzaile, margolari, zientzialari eta tankerako pertsonen inguruan dakitena galdetuko zaie. Beraz, ezagutzen dutena azaldu beharko dute kasu honetan, haien bizitzan noizbait hauetako norbaiten inguruan entzundakoa edo ikasitakoa kontatuz. Aipatzen diren pertsona guzti hauen artean zenbat emakume eta zenbat gizon ikustea izango da hurrengo pausua. Bereizketa egin ondoren, ikusitako bereizketa horren inguruan hausnartuko da.

4. Emakume ospetsuak

Behin emakume famatuaren inguruan dituzten aurrejakintzak zein diren ikusita, arlo ezberdinetan gauza garrantzitsuak egin dituzten emakumeen informazioa bilatu beharko dute, eta honela emakume ospetsu ezberdinak ezagutzuz joan, eta egin dutena ikasiko dute.

5. Murala eta erregistro fitxa

Proposamenarekin bukatzeko, bilatutako informazio hori erregistratu eginen dute erregistro fitxa batzuetan. Bertan beraz, ezagututako emakume famatu guztien informazioa egonen da, eta entziklopedia feminista sortuko dute. Gainera, ikasitako informazioarekin

mural bat eginen dute, gainontzeko ikaskideek emakume famatu hauek ezagutzeko, eta emakumeek ere gauza izugarriak egiten dituztela ikusteko.

Ebaluazio tresnak

Aurrera eramandako proposamena ebaluatzeko behaketa erabiliko da. Behaketaren bidez aurrek jarduera ezberdinak aurrera nola eramaten dituzten, eta ariketa ezberdinetan behatzen dena apuntatuz joanen da, horrela jardueren ebaluazioa erraztuko du.

4.3.2. 2EN PROPOSAMENA: ETXEKO LANAK EGITEN DAKIT

Orain azalduko dudan ariketa hau ez da unitate didaktiko bat, ariketa bat baizik. Ariketa honen bidez ikasleek egunerokoan haien etxeetan dituzten rolak aztertzeke egin da, horren inguruan etxean zer gertatzen den ikusi eta hausnartzeko sortu zen.

Testuingurua eta justifikazioa

Ariketa hau noiz egin behar zuten pentsatzen hastean, martxoaren 8an emakumearen eguna zela eta, aste horretan zehar lantzeko proposatu zen. Martxoak 8ko eguna ospatzeko beraz, etxeetan sortzen diren lanak eta lan horien banaketak nola egiten diren aztertzea izanen da ariketaren helburua.

Ariketa honetan arazo bat planteatzen zaie ikasleei, eta arazoa honakoa da: "Etxean lan edo egiteko asko daude baina hauen banaketa ez dago orekatua. Zer egin dezakegu banaketa hau modu orekatu batean egin ahal izateko?". Galdera edo arazo honi irtenbide bat bilatu aurretik, haien etxeetan zer nolako egoera dagoen aztertuko da, haien esperientzia pertsonaletik abiatuta emakume eta gizonen arteko rol ezberdintasuna aztertuko dute beraz.

Curriculum

- **Arloak**

Curriculumari dagokionez, 23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetarako curriculum ezartzen duen horretatik hiru arloak lantzen dira. Hau da, ariketa honen bidez nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala, Hizkuntza: komunikazioa eta irudikapena eta Ingurua ezartzea arloak landuko dira.

- **Helburuak**

Helburuei erreparatuz gero, ariekta honen bidez zenbait helburu landu nahi dira:

- Nork bere bizipenak ahoz kontatzea.
- Gure inguruan dauden lanen banaketaz ohartzea.
- Autonomia bultzatzeko lan horietako baten ardura hartzea.
- Izen esanguratsu batzuen zerrenda egitea (familiakideak).
- Zenbakikuntza eta grafikoen interpretazioaren hastapena: gehien, gutxien.

Adin tartea eta denboralizazioa

Ariketa hau 4 urteko gelan proposatu da, umeei dituzten ahalmen mailei erreparatuta, haiek gai egiteko diren ariketak proposatuta. Bertzalde, denboralizazioari dagokionez 6 saiotan egiteko proposatutako ariketa da, eta martxoak 8ko astearen inguruko egunetan egingen da, emakumearen eguna ospatzeko intentzioz.

Ariketa

Lehenik eta behin ariketari hasiera emateko, “urdaburutarrak” ipuina kontatuko zaie, eta horren inguruan hitz egingen dute ondoren gelan. Ipuinan amak etxean lan guztiak egiten dituela azaltzen da, eta honen aurrean nola jokatzeko duen ikusteko balioko die kontakizunak. Behin ipuina irakurrita hurrengo egunerako etxean bakoitzak zer etxeko lan egiten duen idatzita ekarri beharko dute.

Hurrengo egunean beraz, ariketarekin jarraituko dute eta behin korroan daudela bakoitzak idatzitakoa irakurriko du eta guztion artean komentatuko dute. Nahi duenak lagunen batek errandakoaren inguruko esperientzia pertsonalen bat kontatu nahi badu edota zerbait gehitu nahi badu aukera izanen du. Ikusitako horren inguruko hausarketa orokor bat egingen dute gero korroan.

Hau amaitzean etxean bizi diren pertsonen zerrenda egin beharko dute, eta horretarako irakasleek fitxa bat emanen diete. Behin fitxa beteta, bertze fitxa bat bete beharko dute, eta bertan etxeko lanen zerrenda bat egonen da, eta lan horietako bakoitza etxeko nork egiten duen identifikatu beharko dute. Fitxa horrekin zenbakuntza landuko dute ere, lan horietatik bakoitzak zenbat egiten dituzten apuntatuz.

Behin fitxa osatuta, talde handian grafiko bat sortuko dute eta bertan lan horiek nork egiten dituen gehien edo gutxien irudikatuko dute. Gainera, lan horietatik bakoitzak zein egiten dakizkiten identifikatu beharko dute ikasleek. Ariketa honekin bukatzeko, egiten ez

dituzten lan horietako bat aukeratu beharko dute, eta egun hauetan etxean egingo dutelaren konpromezua hartu beharko dute. Horretarako konpromezu dokumentu bat bete beharko dute non bertan haien hitza emango duten.

Gainera, saio hauetan egindako lan idatziak edota dokumentuak etxera eramango dituzte gelan landutakoa etxekoekin aipatzeko eta haiekin ere hausnarketa bat egiteko. Gainera, ariketa honekin bukatzeko aukeratutako lanean ari direla argazki bat atera beharko dute, eta gero gelako ikasle guztien argazkiekin album bat sortuko dute.

Ariketa honen azkeneko emaitza beraz etxeko lan bat egiteko konpromezua hartzea eta egiten ari den bitartean argazki bat ateratzea izanen da, gero guztien argazkiekin album bat egiteko. Album hori gelan geldituko da gero, ikasleek nahi dutenean ikusi eta komentatu ahal izateko.

Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, egindako ariketa honetan ikasleak zertarako diren gai ebaluatuko du irakaslea. Horretarako erregistro edo behaketa fitxa baten bidez ikaslea gai egiteko dena edo gai egiteko ez dena erregistratuko da zenbait puntu jarraituz:

- Bere bizipenak, etxean egiten dituen lanak, ahoz kontatzen ditu.
- Bere inguruan dauden lan batzuk identifikatzen ditu.
- Autonomia bultzatzeko lan horietako baten ardura hartzen du.
- Izen esanguratsu batzuen izenak identifikatzen ditu eta idazten saiatzen da.
- Grafiko batean gehien eta gutxien non dauden identifiikatzen ditu.

Bi proposamen hauek behatu ondoren genero eta genero estereotipoak gelan lantzea ezinbertzekoa dela ikusi dut. Horregatik gai hau gelan lantzeko proposamen didaktiko bat proposatuko dut, eta bertan adin goiztiarretik ideia horiek deuseztatu eta berdintasunean heitzeko ideiak barneratuko dira, batez ere errespetuzko gizarte batean bizi ahal izateko beharrezko ideiak barneratzeko zenbait ariketa proposatuta.

5. NIRE PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

SARRERA

Hurrengo orrialdetan azaldutakoa sexu/genero estereotipoak lantzeko sortutako proposamen didaktikoa da. Proposamen didaktiko hau proposamen hutsean geratuko da, etorkizunean aurrera eramateko helburuarekin prestatuta. Aurrera eramateko aukerarik ez dut izan, beraz ez dakit zein puntutaraino izan daitekeen erabilgarria. Gaia lantzeko zenbait ariketa prestatu ditut, nahiz eta izan daitekeen etorkizunean praktikara eramanez gero gauzaren bat aldatu behar izatea. Baina printzipioz Haur Hezkuntzako ikasgela batean gaia lantzeko asmoa izanda, hau izango litzateke aurrera eramango nukeen proposamena.

ADIN TARTEA

Proposamen didaktiko hau Haur Hezkuntzako bigarren zikloko hirugarren urtean egiteko proposatua dago. Hau da, 5 urteko umeekin lantzeko, ariketak adin tarte honetako umeek dituzten ahalmen eta beharrei egokituak baitaude. Ratioei dagokionez, ez da garrantzia handia izan dezakeen ezaugarri bat, taldeak ikasle kopuruaren arabera egin daitezkeelako, eta ikasle kopuruak ez duelako proposamena baldintzatzen. Aipatzekoa da agian ikasle asko badaude helburuak lortzeko zailtasunak sor daitezkeela, baina hau horrela izanez gero helburuak edota planteamendua ratio horietara egokitzea izango da irtenbidea.

Adin honetan dituzten ahalmenak edota garapen fasea kontuan hartuta hainbat ariketa proposatu dira. Aipatzekoa da ere, nahiz eta sexu/genero estereotipoak lantzean oinarritu naizen lana egiteko, zeharkako ikasgaiak ere landu direla, Haur Hezkuntzako globalizazioa errespetatuz, hala nola:

- Arte plastikoak: adin honetan haurrak idazten hasiak dira, baina oraindik ikasten dabilta. Marrazkiak egiteko gai ere badira, baita margotzeko ere, eta azken bi hauek egiteko trebetasun gehiago dutenez hauetan oinarrituko da. Material ezberdinak erabiliz marrazkiak edo irudiak egitera animatuko dira ikasleak, haien sormena lantzeko ideiarekin. Ariketa honetan sormena lantzea izanen da helburu nagusia, eta material ezberdinak erabiliz, errotulagailuetatik aterata, irudiei arropa egin daitezkeela ezagutzea nahi da. Azken finean, margo eta errotulagailuekin egiten dute normalean, eta oraingo honetan egunerokotasunetik pixka bat ateratzea da helburua, eta

guraizeak eta itsaskina erabiltzeaz gain, gomaeba, kartulina eta tankerako materialak ezagutzeko aukera emanen zaie.

- Musika: musika arloa ere landuko dugu proiektu honen bidez. Abesti ezberdinak erabiliko dira gaia lantzeko, eta gainera zenbait jarduera egiterako orduan kontzentrazioa garatzeko lagungarria izango zaigu tresna hau.

GAI HAU LANTZEAREN ZERGATIA

Proposamen hau 5 urteko gelan egiteko proposatu izanaren zergatia adin egokia izan daitekelako da, eta proposatutako helburu didaktikoak lantzea erraza izan daitekeela uste dut. Nahiz eta oraindik ere txikiak izan beren ingurunean gertatzen denaz ohartzen dira eta adin horretatik mundua edo ingurunea bertze modu batera ikusten ikasteko adin egokia da. Gainera, adin honetan bereizketa nabarmenak ematen dira neska eta mutilen artean eta hau txikitatik lantzea garrantzitsua da, azken finean berdintasun batean heziz gero etorkizunean bereizketa hauek emango ez dituztela uste dudalako.

Umeez adin honekin uste baino askoz ere kontzientzia handiagoa dute, eta gauza askotaz ohartzen dira. Izan ere, haurrak adin tarte honetan (bereiziki) hasten dira talde lanetan disfrutatzen, abilezia maila askoz garatuagoa dute, sentitzen dituzten emozio eta pentsamenduak ezagutzen eta azaltzen hasiak dira, honek pentsamendu kritikoa ahalbidetzen duelarik.

Hori dela eta, ariketak aurrera eramateko haien egunerokoan bizitzen dituzten gauzetan oinarrituko da proposamena, eta modu honetan ere lehenengo pertsonan ikusi ahal izango dute haien inguruan zer gertatzen den, eta bereizketa edo genero ezberdintasun hauekin bukatzeko zein bide eraman behar dugun.

Gai hau aukeratzearen zergati nagusia, gizartean dauden bereizketak desagerrarazten saiatzeko ibilbide bat hastea da. Horretarako, gai hau jorratzea erabaki dut, txiki txikitatik lantzea hagitik garrantzitsua dela uste dudalako. Izan ere, izaera-jarrera hauek txikitik hasten dira berenganatzen. Hau da, konstrukzio soziala da, ez berezkoa. Sarritan konturatzen ez garen arren, ikasgelan ere neska eta mutilen artean ezberdintasunak ematen dira: jostailuak aukeratzeko orduan (neskek irakurtzeko eta margotzeko joera izan ohi dute, mutilek aldiz, jostailu “aktiboagoak” nahiago dituzte). Margoen koloreak aukeratzeko orduan edota jolas sinbolikoan aritzean hartzen dituzten rola edota jolasetan ere ezberdintasunak

ikusten dira. Gainera ezberdintasun nabariak ikusten dira errekreo orduan, zein jolasetan aritzen diren behatzean.

METODOLOGIA

Metodologiari dagokionez beraz, proposamen honek ikasleen parte-hartzea, inplikazioa eta motibazioa bilatzen ditu, eta batez ere metodologia aktiboan oinarritzen da. Ikasleak dira ikaskuntzaren protagonistak, bere kabuz ikasteko gai izateko hezitzen dira, honek baliabideak eta aukerak ematen dizkie beraiek bakarrik esploratu eta ikas dezaten. Gainera, metodologia honetan partehartzaileek prozesua partekatzen dute, eta azken helburua produktu bat sortzea izanen da.

Proiektuen bidezko metodologia kontuan izanda, “Errandakoa ahaztuko dut, irakatsitakoa oroituko dut, bizitakoa ikasiko dut” leloari eutsi argi uzten da esperientziaren bidez ikasitakoak izanen duela garrantzia, eta bertan emanen dela ikaskuntza. Proiektu bat bukatzean, ikasleak enpatikoak, autonomoak, kritikoak, parte-hartzaileak eta sortzaileak izatea lortu nahi da, eta horretarako aipatutako metodologia erabiliko da, jarduerak ideia horietara egokituz beti ere.

Metodologia hau erabiltzeak hainbat onura ditu, hala nola, ikasleen motibazioa areagotzea lortu nahi da, ikaskuntza hauek azkarrago ematen dira eta epe luzeko memorian gordetzen dira. Gainera, ikasleak lankidetzarako, pentsamendurako eta erabakiak hartzeko estrategiak garatzen ditu, gerora bizitzan zehar gehiago landuko dituenak.

Ikasleen interesetan oinarritzea ezinbertzekoa izanen da proposamenean, eta nahiz eta proposamen honen planteamendua bi astetan egiteko planteatua dagoen, umeen interesetara egokituko da. Hau da, izan daiteke umeek gaiarekiko sekulako interesa izatea eta gehiago jakin nahi izatea, edo ariketa zehatz batean haien interesa piztea eta gehiago jakin nahi izatea. Hori gertatuz gero, iraupena luzatuko litzateke, baina alderantziz ere gerta daiteke, eta lantzen ari diren gaiak ez baditu ikasleak motibatzen egokitzapenak egingo dira, eta behar bada denbora tarte txikituko da, baita ariketak moldatu ere.

CURRICULUMA

Espania mailan adostuta dagoen Hezkuntza Curriculumak ez dituenek Autonomia Erkidego bakoitzaren egoera kontuan hartzen, Autonomia Erkidego bakoitzak badu, horretan

oinarriturik, bere egoerari egokitzen den dokumentu ofizial bat. Nafarroaren kasuan 23/2007ko Foru Dekretuan oinarritzen da hezkuntza ziklo eta maila bakoitzeko edukiak eta helburuak adosteko, beste gauza askoren artean.

Hau kontuan hartuta, genero eta genero estereotipoak lantzeko egingo diren jarduera eta bestelako ariketak curriculumeko eduki eta helburuei estuki lotuak egongo dira, horiek errespetatuz eta ahalik eta modu zehatzenean jarraituz.

- **EDUKIAK**

Proposamen pedagogiko bat egiten denean ezinbestekoa da edukiak argi edukitzea ahalik eta profesionalena izan dadin. Horretarako, aurretik aipatutako Nafarroako Foru Dekretuan agertzen diren edukiak kontuan hartu behar dira eta horiek ahal den heinean proiektuan aplikatu.

Proposamen hau Haur Hezuntzako nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala arloan oinarritzen da, lehenengo multzoko bi edukitan hain zuzen ere:

- Nork bere burua, bere gaitasunak eta mugak onartu eta modu egokian eta positiboan baloratzea.
- Desberdintasunak modu positiboan baloratu eta errespetatzea, besteen identitatea eta ezaugarriak onartzea eta bereizkeriako jarrerak baztertzea.

Eduki hauek proposamenaren buru diren arren, arlo honetako bertze eduki bat lantzen da ere:

- Bere eta besteen sentimenduak, emozioak, bizipenak, lehentasunak eta interesak identifikatu eta azaltzea. Nork bere sentimenduak eta emozioak gero eta hobeki kontrolatzea.

Proposamena ez da sentimendu eta emozioetan oinarritzen, baina errespetuzko harremanak sortzearen bidean egonda, landu egiten da, zeharka bada ere. Ikusten den moduan, proposamenera gehien aplikatzen diren edukiak 1.arloan agertzen dira: nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala. Gainontzeko arloetako edukiak ez dira lantzen, ingurunea zein hizkuntzan ez baita oinarritzen proposamena.

PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN AURKEZPENA

Proposamen didaktiko hau bi asteetan egiteko planteatua dago eta sexu/genero estereotipoak lantzeko asmoz egun bakoitzean planteatutako jarduerak aurrera eramanez dira, hauek haurren interesetara egokituz.

9. taula

Jardueren antolaketa

EGUTEGIA	
Eguna	Jarduerak
1	Mutilek urdinez eta neskek arroxek jantzi behar ahal dute?
2	Zer dira sexu/genero estereotipoak?
3	Zein irudi dituzu gustuko?
	4.jarduerak: abestiak, ikasteko bide aparta
4	Aitatxo-amatxo/ amatxo-amatxo/ aitatxo-aitatxo / aitatxo / amatxo, zertan egiten duzue lan?
5	Aitatxo-amatxo/ amatxo-amatxo/ aitatxo-aitatxo / aitatxo / amatxo, zertan egiten duzue lan?
6	Gure erreferente kuttunenak
7	Gu ere sexu/genero estereotipoal deuseztatzearen alde!
8	Gu ere sexu/genero estereotipoal deuseztatzearen alde!
9	Gu ere sexu/genero estereotipoal deuseztatzearen alde!
10	Gu ere sexu/genero estereotipoal deuseztatzearen alde!

HELBURUAK

Proposamen pedagogiko bat sortzen denean ezinbestekoa da helburuak argi izatea eta horiek ahal den heinean aplikatzen dituzten ariketak sortzea. Horregatik, Haur Hezkuntzako curriculumeko ondorengo helburuak hartuko dira kontuan ariketak egiteko:

- Bere sentimenduak, emozioak, beharrak edo lehentasunak identifikatzeko gaitasuna, hala nola haiek besteei azaldu eta komunikatzeko, besteenak ere identifikatuz eta errespetatuz.

- Bere jokabidea besteen beharretara eta eskakizunetara egokitzeko gaitasuna, errespetuko, laguntzako eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak garatu eta mendetasuneko nahiz nagusitasuneko jokabideak baztertzeko.

Bertze alde batetik, Foru Dekretuan agertzen diren helburuez gain, proposamena egiteko sortutako helburuak daude ere, helburu zehatzak izango direnak:

- Sexu/genero estereotipoak zer diren ezagutzea eta identifikatzeko gai izatea.
- Hausnarketan bidez hauen inguruko iritzi kritikoa osatzeko gai izatea.
- Egunerokoan jasotzen ditugun irudi bisualetan ditugun sexu/genero estereotipoak ezagutzea eta hauekin bukatzen duen pentsamendu alternatibo bat sortzea.
- Sexu eta generoaren gainetik, guztiak pertsonak garela ikastea eta beraz, pertsona guztiak errespetuz tratatzen ikastea.

JARDUEREN AZALPENA

1. MUTILEK URDINEZ ETA NESKEK ARROXEZ JANTZI BEHAR AHAL DUTE?

Lehenengo ariketa honetan umeei zein pentsamendu dituzten aztertuko da. Estereotipoak eta batez ere sexu/genero estereotipoak zer eta zein diren ikusi aurretik, umeei alor teorikoan aipatutako estereotipo horiek zein puntutaraino barneratuak dituzten ikusteak izango da ariketa honen helburu nagusia. Horretarako umeei egunerokoan dituzten irudi bisualak erabiliko dira, hala nola ikusten dituzten marrazki bizidunak edota hainbat jolasen iragarki ezberdinak ikusiko dira gelan, eta bertan ikusten duguna aztertuko da guztion artean.

Umeei ikusten ahal dituzten marrazki bizidun zein jolasen iragarkiak anitzak dira, eta guztiak ikusteak ezinezkoa denez, nolabaiteko analisia egin ondoren, Disneyeko marrazki bizidunetan sexu/genero estereotipoak gehien isladatzen diren marrazkiak direla ondorioztatu daiteke. Egia da gaur egungo umeentzat Disneyeko marrazkiak ez direla oso ezagunak, eta hau analizatuz gero haien errealitatek atera gaitzke. Horregatik, egunerokoan telebistan ematen dituzten marrazki bizidunak aztertzea izango da aukerarik onena. Hau horrela, "Patrulla Canina" eta "Pepa Pig" telesailak aztertuko dira ariketa honetan, eta irakasleak umeei ikusten dutenaren inguruan galdera ezberdinak egingen dizkie.

Ikasleak korroan daudela hasiko du irakasleak ariketa hau, eta galdera ezberdinak egingez hasiko da. Ikasleak deigarria zaien zerbait aipatzea eskatuko die irakasleak eta zein

galdera mota egingo dituen aipatu aurretik garrantzitsua da jakitea galdera hauek ezin daitezkeela edozein modutan egin, galderak irekiak izan behar dira umeei erantzuna ez mugatzeko. Hau kontuan izanda, marrazki bizidunak zein iragarkiak ikusi ondoren tankera honetako galderak eginen ditu irakasleak:

- Zer ikusi duzue irudi hauetan?
- Deigarria egin zaizuen zerbait ikusi duzue?

Umeei ikusitakoaren inguruan duten ideia orokor bat ikustean eta atera den informazioa kontuan izanda, landu nahi den gaira hurbiltzeko tankera honetako galderak eginen dira:

- Zer jarrera du emakumeak ikusitako irudietan?
- Zer nolako arropa daramate mutilek? Eta neskek?
- Zein kolorekoa da mutilen arropa? Eta neskena?
- Zein dira irudietako protagonistak?
- Zein dira ikusitako irudietan pertsonaiek dituzten lanbideak?

Galdera hauen bidez beraz, umeei sexu/genero estereotipoen inguruan barneratuak dituzten ideiak (ideiaren bat barneratua izanez gero) ateratzen joaten da eta irakasleak aipatzen diren ideia guztiak hurrengo egunean emango den azalpena osatzeko kontuan hartuko ditu.

2. ZER DIRA SEXU/GENERO ESTEREOTIPOAK?

Hurrengo egunean ere, korroan daudela aprobetxatuz, aurreko egunean egindako ariketa kontuan hartuta, sexu/genero estereotipoen inguruko azalpenak emateko eginen da ariketa hau. Argi dago azalpen hauek ez direla hagitik konplexuak izanen, 5 urteko ume batek ulertzeko modukoak izanen dira. Horretarako beraz, material zehatz batez baliatuko da irakaslea umeei azalpen hau errazagoa egiteko. Baliabide edo material hauek irudi ezberdinak izanen dira eta bertan pertsona baten irudia agertuko da. Irudi honek ez du sexu/genero estereotiporik izanen, eta arropa mota ezberdina eramanen du jantzita. Arropa hau kolore ezberdinetakoa izanen da, eta noski, sexu/genero estereotipoekin hautsiko duten irudiak izanen dira.

Gainera, lanbideen inguruan dauden sexu/genero estereotipoak lantzeko ere karta batzuk erabiliko ditu eta bertan estereotipo horiekin bukatzen duten irudiak izanen dira. Hala

nola, emakume suhiltzaile bat, ballet dantzaria den gizon bat, eta abar. Irakasleak irudi hauek irakatsiko dizkie ikasleei eta galdera hau egingen die:

- Zer ikusten duzue irudi honetan? Eta bertze honetan?

Ikasleek irudiek dituzten ezaugarriengatik mutilak eta neskek ikusten dituztela erratea espero da, eta hau horrela izanez gero irakasleak azalpenak emateko momentua izanen da. Erran bezala, azalpen hauek ez dira konplexuak izanen eta irakasleak azalduko die neska edo mutila den jakiteko pertsonari galdetu behar diogula, janzkera edota koloreengatik ezin dugula sailkapen hau egin. Pertsona anitzak daudela aipatuko die irakasleak ere, eta bakoitzak ezaugarri ezberdinak dituela, neska eta mutila izateagatik ezaugarri zehatzak ez daudela.

Azalpen hau oso murrizta izanen da, baina ikasleek gure mundua anitza dela ulertzeko emanen dira azalpen hauek, eta norbait mutila edo neska den jakiteko pertsona horri galdetzea ezinbertzekoa dela ulertzea izanen da ariketa honen helburu nagusia. Azalpen hauek egin ondoren hausnarketa txiki bat egingen dute guztien artean ikusitako guztiaren inguruan hitz egiteko, eta ikusitakoaren inguruan norbaitek zerbait aipatu nahi izanez gero aukera emateko.

3. ZEIN IRUDI DITUZU GUSTUKO?

Datorren egunean egingo den ariketa hau korroan egon ondorengo saioetan egiteko planteatu da, eta ikasleei bertan daudela egin beharrekoa azaldu ondoren hasiko da jarduera, ariketa egiteko lasai dauden momentua izanik. Aurreko egunean azaldutako informazioaren berri dutela, hurrengo egunean egunerokoan ematen jasotzen dituzten ideia horiekin puskatzen duen ariketa bat egingen dute. Horretarako ikasle bakoitzak pertsona baten irudia duen kartulina bat izanen du, eta irakasleak sortutako material ezberdinak aukeratuz haiek nahi duten moduan apainduko dute gorputz hau. Material hauek mahaiaren erdian egonen dira eta kartulina edo gomaebarekin egindako kamixeta, galtza, ilea, apaingarriak eta abar izanen dituzte, eta ikasle bakoitzak nahi duen arropa hartu eta kartulinako gorputzetan itsatsi beharko dituzte.

Ikasleek sortutako irudi hauen bitartez ikasleek aurreko ariketan emandako azalpenarekin ideia berriren bat sortu zaien edo buruan aurretik dituzten ideiekin sortutako irudiak diren ikusteko baliogarria izanen da. Ariketa honekin bukatzeko, nahi duen ikasleak

egindako irudia gainontzeko lagunei irakatsi eta horrela egin izanaren zergatia azaltzeko aukera izanen du. Behin bukatuta, egindako marrazki horiek gela zehar jarriko dira apaintzeko.

4. ABESTIAK, IKASTEKO BIDE APARTA

Ariketa honetan landuko diren abestiak gainontzeko egunetan lanean aritzeko erabiliko diren arren, ariketa honen bidez abestiak ezagutu eta aztertzea izanen da ariketa honen helburu nagusia eta horretarako, proposamenaren 3. eguna erabiliko da, eta patio ondorengo saioetan egingen da. Musika gauza ezberdinak ikasteko tresna bikaina da, eta ikasteaz gainera, lan egiteko primerako bidelaguna da, umeak lanean ari diren bitartean hauen motibazioa sustatzen baitu, beti ere motibazio hau sustatzeko musika aproposa jarritz gero, noski.

